

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko azaroak 3

211. zenb.

Jardunaldiak

ARRASATE 1993ko URRIaren 30 et

Erreportaia

Autopistaren aldeko
eta kontrako iritziak

Kirola
Saskibaloiarien
martxa bikaina

Euskara Elkartearen Jardunaldiak

Elkarlanerako
deiak



Irugarren Kotxa
3. HILABETEA

Azaroa ere
Emozio-aroa
Zure libretarentzat


bizigarria
dirau



DATORREN **ABENDUAREN 9AN**
BESTE SEAT IBIZA CL 3 ATEDUN BAT
ZOKKETATUKO DUGU ARRASATEN

Eskura itzazu txartel zenbakiuak **abenduaren 1etik 30era** bitartean
zure aurrezki-libretan aurreztuz.

Kutxan aurreratzeak badu abantaila franko!



... kutxa ...

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06

Memesa

79 42 22

Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso duAldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Idazlanak eta nire kezkek

Artikulo txiki hau idazten hasterakoan, kezkatu naiz. Ez baitakit zenbat eta ze eratako pertsonak aurkitzen duten interesgarri hain nekez erdaintzen dutan lantxoak. Gai mamitsuak azaltzen saiatzen naiz, eta euskera irakur errexean. Saiatu bai, bainan lortu?...

Egunkarietan irakurtzen dudana zenbat idazlanek liluratu naute. Hitz gutxi, idazkera eder, ideak garbi nahiz eta, askotan, ados ez egon. Eredu bikainak eta nahikari nerretzat, baina ikasketak euskeraz egin ez genituenontzat trebetasun ametsgarria.

Arrasate Press bera ere, eta horri honetan idazten duten zenbat lagun lanak, neroni eta beste askori zailak egiten bazaizkigu, nolaz ez zalantzan jarri nere idatziak? Ez dakit zenbateraino izaten ohi dugun begien aurrean eta gogoan herri hizkuntza eta eus-

keraz ez eskolatuak, gure herritar gehiegoa.


Beharrezkoa izanik euskeraz idaztea, beharrezkoa da idatzitakoa irakurtzea ere. Idazten dugunok, lanaren poderioz erraztu eta edertu behar genuke gure idazkera. Ez bada idazten errez eta eder, nekez irakurriko baita; bestalde, oso gutxi irakurtzen badigute, ez du euskerak aurrera egingo.

Gure, nerea bai behintzat, sendagaia: lana, lana eta lana. Irakurlearena, berriz, patienzia handiz, irakurri eta irakurri trebetasuna hartzeko, gure akatsak eta hutsuneak barkatuz.

Gaurko, agur. Motz, bai; egoki?...

SAGARRAGA

JOSE MARI ASTIGARRAGA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Karmelo.

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritzitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

IGPak direla eta

Joan den urriaren 16an, euskal Administrazioak, bere bozgorailu pribilegiatutik, ETBtik, "iniziatiba moderno" bat martxan jarri zela jakinarazten zigun herritarroi, inizatiba berritzailea, Urbina eta Maltzaga arteko autopista proiektuaren inguruan kontsentso soziala lortzeko. Zein da administrazioak Interbentzio Gune Partehartzaile (IGP) hauek martxan jartzearekin lortu nahi duen helburua?

Egin ditzagun pare bat galdera. Administrazioak soziologo talde bat kontratatu du herritarren iritzia ezagutzen Urbina-Maltzaga autopista hipotetikoaren gainean, gero horren arabera zerbait egiteko?

Argi dago ezetz. Batetik, "sondeo" hori ez da binkulantea, eta bestetik erabakia hartuta dago.

Helburu hori bazterturik, bila dezagun beste bat. "Iniziatiba" honen bidez administrazioak zer nahi du, herritarrei informazio zabala eskaintzea proiektuaren aldeko eta kontrako arrazoiak aurka gaudenekin? Ez da hori ere. Hori balitz, lehenbizi jarri, informatu, hitz egingo lukete aurka gauden taldeekin, eta aukeratu duten bidea kontrakoa da, itxikeria, desinformazioa.

Zer dago, beraz, IGPen atzean? Nire ustez, obra faroniko hauen kontrako jarri gero eta zabalagoa ikusirik, Leitzarango autobidea-

ren kasuan bezala, administrazioak badaezpadako jarri hartu du eta IGPak erabili nahi ditu tresna "formalki demokratiko" gisa, beren proiektu eztabaidatsua legitimatzen saiatzeko (...).

Bukatzeko, galdera inozo bat: ordainduko ote lioke administrazioak soziologo talde bati jadanik erabakita dagoen proiektu bat bertan behera botatzeko? Barre algarak entzuten ditudala iruditzen zait.

JAVIER ABALDE GALPARSORO

**Kazetaritza
ikasleen
arazoak**

Kazetaritzako klaseak ez daukate inolako normaltasunik. Ikasleok jasaten ari gara ez dagokigun zigorra, 500 ikasle kaltetu inguru gara eta dagoeneko jasanezina bihurtu da egoera hau.

Iazko ikasturtean bi ikasgaitan irakasle kaltetuak geneuzkan, hala ere egunero klaseak eman zizkiguten. Kurtsoaren erdialdean karta bat heldu zitzaigun esanez haiek ez zirela gure irakasleak eta ikasgai horiei zegozkien materiak jasotzeko erdarazko taldeetara pasatu behar ginela.

Guk geneuzkan irakasleak egunero etorri dira eta beraiekin lanak eta azterketak egin genituen. Zertarako erdarazko talde batera pasatu, euskarazko ikasketak egiteko matrikulatu bagara.

EHUK ez daukala diru-

rik ez dugu sinisten, bestela nola xahutzen du dirua beste gutun zertifikatu bat bidaltzen? Oraingoan kartak zioen bi ikasgai hoietan lanak egin genituela aprobatzeko. Lanak zuzenduko zituen tribunala erdalduna zen.

Lan hoiiek egitea ez genuen onartu, gure azterketak eginak genituelako, beraz, bi hoietan "Ez aurkeztua" jarri digute notatan, eta matrikulazioan suspendituta datoz.

Kazetaritzako 1. mailakoak ere arazo honetan aurkitzen ziren, baina Tribunaletako partaide batek beraien aktak sinatu zituen. Zergatik ez da berdin egiten gainontzeko ikasleekin?

Konponbidea eskatzen dugu, behin eta berriro, baina ezinezkoa da elkarrizketa sasoizko bat lortzea. Indarkeria besterik ez dute erabiltzen; guarda juratu eta erantzainak. Azkeneko mobilizazioetan lau ikasle harrapatu eta datuak hartu zizkieten. Beste bi ikasle jipoi izugarria jaso zuten eta ondoren esposaturik eta inkomunikaturik eduki zituzten errektoregoan. Guzti hori gurea dena eskatzeagatik. Hau da ematen diguten erantzuna, hots "komunikazioa".

Eskubidea dugu behar den bezela ikasteko baina badiardi ikasteko eskubidea eskaera bihurtu dela. Nahikoa da, guk bakarrik nahi dugu gure azterketak onartuak izan daitezen. Gurea dena lortu arte ez dugu etsiko.

**ARRASATEKO BI IKASLE
(IKASLE KALTETUEN
ASANBLADA, LEIOA, EHU)**

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Zer duzu nahiago, eguraldi hotza ala beroa?



Antonio Arabio
Bidaia agentziakoa
(52 urte)

Ez daukat preferentziarik, niretako antzera samar da hotza ala beroa egitea.



Francisca Puertas
Etxekoandrea (56 urte)

A ze galdera! Onena erdikoa litzateke, baina tira, beroa hobe.



Francisco Nogales
Jubilatua (59 urte)

Nahiago dut beroa, lane-rako okerragoa da, baina kaltetik ibiltzeko askoz hobe.



Izaskun Saiz
Langabetua (28 urte)

Beroa nahiago, irteteko eta. Eguraldi hotzak tristura ematen dizu.




Antonio Caballero
Pentsionista (56 urte)

Diferentzia askorik ez du egiten, baina uda hobe bategua baino, duda barik hori.



Anuska Saiz
Erizaina (26 urte)

Udako beroa nahiago, hondartzara joateko hobeto dago.



Ander Landaluze
Harakina (40 urte)


Hotza gehiago gustatzen zait. Eskiatzea gustatzen zait, mendia, eta edurra gehiago apreziatzen dut.



Tere Gonzalez
Musikaria (32 urte)

Hotza nahiago, dudarik ez. Beno, kalefkazioa ere badugu etxean.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispera kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Arexabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
Udaitzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Arexabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 5	
Egunez: Arnezua, Santamaina.	
Gauetz: Puy, Barrenkale.	
Larunbata 6	
Egunez: Ruiz, Madalena.	
Gauetz: Guallar, San Antonio.	
Igandea 7	
Egunez: Morales, San Andres.	
Gauetz: Guallar, San Antonio.	
Astelehena 8	
Egunez: Azkoaga, Ferrerías.	
Gauetz: Estella, Matxiategi, 25.	
Asteartea 9	
Egunez: Español, Iturritzi, 17.	
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren	
Asteazkena 10	
Egunez: Corcuera, Musakola.	
Gauetz: Camacho, Oxirondo.	
Osteguna 11	
Egunez: Inzar, Erguin.	
Gauetz: Puy, Barrenkale.	

5 OSTIRALA

ZINEA

"Parque Jurásico". 7etan eta 10etan.

PINTURA ERAKUSKETA

Santi Altuna arrasatearraren lanak ikusgai. Harresi aretoan. Lanegunetan 6etatik, 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

ANTZERKIA

"Desnudos". Leolo teatro taldearekin. Elorrioko, Arriola aretoan. Gaueko 10etan.

ARGAZKI ERAKUSKETA

"Gazteak Martxan" lehiaketako argazkiak ikusgai. Monte-rongo erakusketaretoan.

6 LARUNBATA

ZINEA

"Parque Jurásico". 5etan, 7,30tan eta 10etan.

MUSIKA

"Tonki blues Band" taldearekin blues emanaldia. Gaueko 12etan, Elorrioko Kafe Ate-neoan.

ANTZERKIA

"Logalea zeukan ekilibristaren kasoa". Amaia antzokian, gaueko 10,30tan. AEDk antolatuta.

7 IGANDEA

ZINEA

"Parque Jurásico". 5etan, 7,30tan eta 10etan.

MENDI BIZIKLETA IRTEERA

Besaide M. Ek antolatuta. Irteera Garibai geltokitik, goizeko 9etan.

AEK EGUNA

Arrigorriagan

DIPOSITIBA LEHIAKETA

ALMENEk antolatuta, Juan Ramón Aranaren oroimenez.

"LOGALEA ZEUKAN EKILIBRISTAREN KASOA"

Bernardo Atxagak idatzitako antzezlanaren taularatu du Maskarada taldeak. Obra hau Bernardoren antzerkilan bakantariakoa da. Gaitasunak galtzen dituen ekilibrista baten kasua kontatzen da. Aipatzekoa da lan honetan musikak daukan garrantzia ere, Juan Carlos Perezek hainbat obra konposatu baititu. Sarrera, 500 PTA. Gazte txartelaz, 300 PTA eta alde zurretik erosi ezkerre, 400 PTA. Ekintza hau, AEDk antolatu du 10. urteurrena ospatzeko.



I. DIPOSITIBA LEHIAKETA

Juan Ramón Aranaren omenez. Deba Garaiko zaletuek partehar dezakete. Gaia, irteeran jakin araziko da. Igandean, Almenen bertan egingo da izen ematea, goizeko 8,30etatik 9etara. Partehartzaile bakoitzari diapositiba karrete bat

emango zaio. Karrete eguerdiko ordu 1ean entregatu behar da. Errebelatu ostean, lehiakide bakoitzari itzuliko zaizkio, berak aukera dezan zein diapositibekin parte hartuko duen. Lanak, azaroaren 15a baino lehen bidali behar dira.

HERRI BAZKARIA

AEDren 10. urteurrena ospatzeko, bazkari herrikoia egingo da hilaren 13an. Bazkarira joateko erosi beharreko txartela, lehenbait lehen erosi beharra dago. Bazkaria kiroldegian izango da, ordu 2etatik aurrera.

MENDI ORIENTAZIOA ETA MENDI IRTEERA

Besaide M. E ko "Gazte Ekintzak" taldeak antolatuta. Besaide aterpera, bi egunetako irteera. Bertan, mendi orientazioari buruzko ideia oinarriko batzuk erakutsiko dira. Izenematea, azaroaren 9, 10 eta 11n. Arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara, Besaideko egoitzan. Prezioa, 1000 PTA. Azaroaren 14rako ere mendi irteera bat antolatu dute. **Ibilbidea: Lizarraga-Berriain. Izenematea, hilaren 9, 10 eta 11an besaide egoitzan, 7,30etatik 8,30etara.**

8 ASTELEHENA**ZINEA**

"Parque Jurásico". 7etan eta 9,30tan.

9 ASTEARTEA**ZINEA**

"Parque Jurásico". 7etan eta 9,30tan.

DROGEI BURUZKO JARDU-NALDIAK

"Denok daukagu zeresana". 7etan, Bergarako kultur etxean.

10 ASTEAZKENA**ZINEA**

"Parque Jurásico". 7etan eta 9,30tan.

AEDren BILERA

Hitzarmena sinatu duten entitateei zuzendua. Herri bazkariari buruz hitzegiteko. Arratsaldeko 7etan, AEDren lokalean.

DROGEI BURUZKO JARDU-NALDIAK

"Curarse una/ o misma o, sin los peligros de los medicamentos". 7etan, Bergarako kultur etxean.

11 OSTEGUNA**ZINEA**

"Parque Jurásico". 7etan eta 9,30tan.

ARGAZKIAK ETA SARIAK

ASA argazki taldearen ikusentzuteko muntaia eta "Gazteak Martxan" lehiaketaren sari banaketa. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan.

DROGEI BURUZKO JARDU-NALDIAK

"Gaur egun Bergaran bizi izatea". 7etan, Bergarako kultur etxean.

**DINOSAURIOAK ARRASATEN**

65 milloi urte pasatu dira dinosaurioak desagertu zirenetik, baina hala ere, azkenaldian denon ahotan dabiliz. Honen erruduna: Steven Spielbergen azken filmea, "Parque Jurásico". Zeresan ugari sortu duen filmea, Alaira heldu da. Aukera paregabea, akzioa eta abentura gustoko dituztenentzat, efektu bereziak ikusten gozatu eta nola ez, esanak esan, Spielberg maisua dela uste dutenentzat.

HAURREN GARAPENA

San Frantzisko Xabier ikastolak eta Umezaintza Haur eskolak, ikastaro bat antolatu dute. 0-3 urte bitarteko haurraren garapenari buruz. Haur bat itxoiten dauden bikoteei, edo orain gutxi haur bat izan dutenei zuzendua. Ikastaroa, 22tik 25era bitartean izango da, arratsaldeko 6etatik 7etara. Monterrongo batzar aretoan. Matrikula azaroaren 17a baino lehen egin behar da, telefono hauetara deituta: 790102-796104-795649.

BOSNIARRENTZAT LAGUNTZA

Bosniarrei laguntza bidali nahi badiezu, Sebero Altube enparantzako lokalean utzi materiala. Bilketa hilaren 9tik, 21era egingo da. Astearte eta ostegunetan, 6etatik 8etara. Larunbatetan 11etatik ordu 1era eta 4etatik 6etara. Igandetan 11etatik ordu 1era. Bertan izango da gomendatutako lehentasunezko gaien zerrenda ere.

MONTERRONGO LIBURU BERRIAK**Helduen liburutegia:**

- SEYMOUR, John: Artes y oficios de ayer
- PETRUSHEVSKAIA, L: Amor inmortal
- BOLL, Heinrich: El angel callaba
- DURAS, Marguerite: Yann Andréa Steiner
- COURTENAY, Bryce: La potencia de uno
- NAUBERT-RISER, C: Klee
- LAURENCE, Margaret: Los habitantes del fuego
- KAFKA, Franz: Prozesua
- LOPETEGI, Eskarne: Hizkuntza zuzen erabiltzeko proposamen-bilduma
- MARÍAS, Javier: Los dominios del lobo
- MICHELENA, Luis: Orotariko euskal hiztegia V
- MUÑOZ MOLINA, Antonio: Nada del otro mundo
- PERRAULT, Gilles: La orquesta roja (2 libk.)
- PILCHER, Rosamunde: Días de tormenta
- SANPEDRO, José Luis: Real Sitio
- SLOAN, Annie: Pintar muebles: fácil y divertido
- VÁZQUEZ MONTALBÁN, M: Sabotaje olímpico
- VÁZQUEZ-FIGUEROA, A: Cienfuegos VI: Xaraguá
- VIAN, Boris: El lobo-hombre
- DOME, Malcolm: Trash Metal
- FORD, Richard: La última oportunidad
- GENET, Jean: Querella de Brest
- GRIJALBA, Silvia: Depeche Mode



“Ez zait ospea gehiegi gustatzen. Ongi dago jendeari nire lana gustatzea, baina gainontze-ko guztia saihestu nahiko nuke. Zerbait apreziatzen badut, hori naturaltasuna da, eta izar izaerak ez dut uste hori gehiegi ahalbideratzen duenik. (...) Izar ez, baina informatiboetako aurkezle ere ez dut neure burua ikusten hemendik hogeit urtera. Horregatik ez nau hain jokoz kanpo harrapatu lan honek, Arrasate Telebistan bi urtez bildutako esperientzia bainuen. Gainera, hau ere amaituko da.”

Jon Anduezak

“... Galdera da ea zoroak izaten jarraitzen dugun edo dagoeneko ez. Ea dagoeneko normalxeagoak garen, ea normalxeago jokatzeko ikasi dugun anormaltasunaren barruan”.

“Aldatzen ari dena, da, honenbestez ez zaigula horrenbeste inporta eztabaida antzutan aritzea ea euskararen botila erdi-hutsik edo erdi-beteta dagoen: honez gero jakinaren gainean gaudela botila hori betetzea dela garrantzitsua. Ez da gutxi.”

Julen Arexola-Leiba

“Oro har, AED egiten ari den lana oso ona da eta uste dut euren helburuak lortzen ari direla. Baina komunikabideekin egiten dutena, Arrasate Press eta ATBrekin, diskriminazioa da. Komunikabide horiek udalaren lepotik bizi dira eta elebidunak izan beharko lukete. Horrez gain, ez dut gustoko egiten duten lan politikoa. Zenbait hauteskudetan, gu euskararen aurka goazela dion propaganda banatu izan dute eta hori gezurra da, udaletxean elebitasunaren alde egiten baitugu. Dena den, oso gustora sakonduko genituzke AEDrekiko harremanak”.

Paco García PSE-EEko zinegotzia

ARGIA

Nola baloratzen dituzu Euskara Elkartearen Jardunaldiak?

Joan den asteko Arrasate Press-en irakurri ahal izan genuen asteburuan Arrasate “euskalgintzaren hiriburu” izango zela. Guzti honek zer adierazi nahi dio arrasatearrari, agian, horrela, besterik gabe, askorik ez. Seguruenik batek baino gehiagok galdetu dio bere buruari ea zer diren Jardunaldiak, zertarako diren. Hauek euskara elkartei buruzko Jardunaldiak izan dira; berau, AEDn bezala, euskara elkarteetan diharduten guztientzat bildu leku eta topagune izan delarik.



Miren Arregi
AEDko kidea

Jardunaldi hauetara helburu zehatzak generamatzen; lehena, euskararen alde lanean ari garenoi, elkar ezagutu eta elkarren artean geure esperientziak trukatzeko aukera ematea; bigarrena, elkarteok egiten dugun lana bide onetik doala frogatzea; hirugarrena, materiala aurkeztea sortu berri diren elkarteetan, bidea errazago izan dezaten; eta azkenik, ibilbide luzeago egin dugunok ere bide berriak urratu ahal izateko sakontze-gogoetak eragingo dizkigun materialeak eskuratzeko.

Amaitu dira Jardunaldiak. Bete dira, ordea, gure helburuak? Nik, zalantzarik gabe, baietz esango nuke. Hala ere, euskararen normalkuntzaren ardurak bultzatuta Euskal Herri guztiatik etorri diren partehartzaile desberdinei galdetuko nieke ea ase dituzten beren jakin nahiak. Gu baiezkoan gaude; hala ere, partehartzaile guztiei inkesta bat bidaliko zaie eta eskertuko genuke behar bezala bete ondoren itzultzea, guk geure aldetik agintzen dugu ezustekorik jasoz gero jakinaraziko genukeela.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 08 15



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAKO

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Hiru hildako istripu batean

Arrasateko diskoteka batetik etxera bueltan zihoazela, Oñatiko hiru gazte hil ziren astelehen goizaldean auto istripu batean. Oñati inguruan, goizeko 5etan, errepidetik irten egin zitzairen autoa, eta barruko bidaiarietatik hiru hil egin ziren: Moises Rodriguez 18 urtekoa, Maria Cristina Proupin 17koa, eta Francisco Javier Delgado 23koa. Beste gazte batek, Sonia Santos 18 urtekoak, zauri larriak izan zituen. Beste istripu batean, Petra Murillo 25 urteko eskoriatzarra hil zen Lاندan, trailer batek bere autoaren kontra jo ondoren, astearte goizaldean.



Euskara Elkartearen Jardunaldien arrakasta

AEDk antolatuta Euskara Elkartei Buruzko lehen Jardunaldiak burutu ziren joan den asteburuan Arrasaten, LKSk egoitzan, Astore, Gertu eta Euskadiko Kutxa babesleen laguntzarekin. Guztira, 200 lagunek hartu du parte Jardunaldietan, eskualde guztietatik etorritakoak Matrikulatuak 150 izan ziren, eta gonbidatu, antolatzaile eta hizlariak izan ziren gainerakoak. Aurpegi ezagunak asko, eta beste asko ez horren ezagunak: jende gaztea eta sortzen ari diren elkarte berrietakoa, euskararen inguruko mugimenduak daukan bizitasunaren seinale. AEDk oso irakurketa positiboa atera du Jardunaldietatik, txostenen mailagatik, jendearen partaidetzagatik eta elkar ezagutzeko aukera politagatik. Jardunaldiak AEDren 10. urteurrenaren inguruko ekitaldien parte izan dira.

Domu Santu ospakizuna Aldain...

Astelehenean, Domu Santu egunez, jendetza handia bildu zen Aldaiko kanposantuan, hildako senideen oroimenez. Datorren urtariletik aurrera, kanposantu berria izango duenez Arrasatek, ez da ehorzketa gehiago egingo Aldain, baina hilerria zabalik egongo da beste 10 urtez, gero berdegune bat uzteko bertan. Kanposantu aldaketa hau ez da denen gustorako izango. Izan ere, Aldain panteoiak dauzkaten 125 familiak ehorzektak bertan egiten segitzeko baimena eskatu diote Udalari, baina ez dirudi hori posible izango denik.

...eta inaugurazioa San Kristobalen

Asteartean inauguratu zen ofizialki San Kristobal-go hilerri berria. Arrasateko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintarien presentziarekin, Jose Mari Astigarraga parrokoak bedeinkatu zuen kanposantua. 300 milioi pezetako obra bat izan da hau, eta parterik handiena Arrasateko Udalak jarri du. Javier Unzurrunzaga arkitektoaren lan honetan, bi klaustro daude eraikita San Kristoba-

len panteoientzat, eta estali gabeko inguru bat ehorzketa arruntentzat. Enterramenduak beheko partean egiten dira, lur azpiko galeria batzuetako nitxoetan, baina jendea ez da horra sartuko. Hildakoen izenak eta oroigarriak goiko losa handi batzuetan jarriko dira, berez hildakoen hondarrak dauden tokitik aparte.

Deba Garaiko adinekoak

ICTE institutuak Deba

Garaiko pertsona nagusiei buruz egindako ikerketa bat aurkeztu zuen joan den ostiralean. Mankomunitatearen enkarguz egindako ikerketa horretan argi ikusten denez, populazioa zahartzen ari da. Datu argigarri bat: 1970 urtean 65 urte baino gehiago zituen eskualdeko biztanleen % 7ak. Gaur egun, % 13koa da kopuru hori, eta 2000. urterako % 18,5 izango dira 65 urtetik gorakoak. Honek argi eta garbi erakusten du zahartzaroan dauden pertsonen eskaintzen zaizkien zerbitzuak zabaldu eta hobetu egin behar direla. Ikerketak azaltzen duen beste puntu bat zera da: pertsona nagusi gehienak familiaren etxean bizi direla. Familiak egiten dira zaharren kargu, eta hortaz, familienganako laguntza plangintza espezifikoak ere egin behar dira, ICTEkoen iritziz.

JAIOTZAK

- Jon Sanchez Alonso. Urriaren 25ean.
- Enara Beloki Granados. 25ean.
- Aitzol Salaberri Merino. 25ean.
- Andrea Herrero Barreno. 27an.
- Andoni Frutos Milan. 28an.
- Iñigo Vicente Lasaga. 30an.
- Saioa Sanchez Alonso. 28an.
- Julen Sanchez Alonso. 28an.
- Leire Berecibar Arabaolaza. 31n.
- Kepa Bruña Iturbe. 29an.

- Josefa Bilbao Goyonaga. Urriaren 27an. 80 urte.
- M^a Pilar Ruiz Gonzalez. 28an. 81 urte.
- Ana Villar Cuadrado. 29an. 95 urte.
- Carmelo Garrido Andres. 30an. 62 urte.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78

ARTOLA
KOMERTZIALA
 Zerkaosteta, 3
 Tfnoa: 79 14 40
 ARRASATE


LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZA ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK
 Zurgin Kantoj, 3 - 1^o Esk.
 Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



GILLERMO ETXEBARRIA *

Iparraldeak merezi ote du?

Urte hastapenean, telefono dei bat jaso genuen Kanboko ikastolan Arrasatetik, laguntza proiektu bat bazutela eta elkar ikusten ahal genuen galdetuz. Hone-la, zenbait aste berantago biltzarreño bat ukan genuen eta bertan AEDko partaideek beraien *auzolandegi* egitasmoaren berri eman ziguten.

Hona, labor bilduz beraien asmoa: udako oporretan, hogeit bat laguneko hiru txanda antolatzeta, lau helburu zehatzekin. Euskaraz bizi, Iparraldeko ikastolak lagunduz, Iparraldea ezagutu eta bertako jendearekin harremanetan sartu.

Guk, Xalbador Ikastegiko-ko, gure aldetik, biziki interesgarri atxeman genuen ideia eta gora behera teknikoak ongi lotu ondoren udaren aiduru gelditu ginen.

Eta uda... ze uda! Goizero, lana jo ta ke. Arratsaldetan, auto edo bizikletak hartu eta hemen-go parajeak ezagutzen. Gauaz besta egiteko aukerarik ez zen eskas, Iparraldea udan (Hegoaldea bezalatsu funtsean) dena jai baita.

Ororen buru, beharrik hemen

izan ditugun arrasatearrak, hauen laguntzarik gabe, ez da dudarik, gaitzeko buruhausteak izanen baikenituztekeen, ikasturte berri-rako beharrezko guttiengoak ezin segurtatuz.

Kontuak kontatzen hasita, bagenuke ixtant baterako. (...) Baina guzti honen gainetik edo tartetik, bete diren helburuak dira beharbada garrantzitsuen. *Euskara hutsean bizitzea*, urtean pare bat astez ez bada ere gauza haundia da. Ez dago erran beharrik inguraturik bizi garena, eta estu estutik inguraturik gainera. Aski izaten dugu erdal izpi bat oro erdarara lerratzeko.

Euskara hutsean bizu den lagun multzoak eragina du taldearen baitan eta taldetik lekora. Talde barnean, bizi tresna den hizkuntza euskara baita; taldetik kanpo, euskara badela orotan erakusteaz gain, beste euskaldunekilako harremanak euskaraz lotzera bultzatzen baitu eta erdaldunekilako harremanetan, atzerritarrekin egiten den bezala, hemen ohizko den hizkuntza menpekotasunaren orde, konpromezuzko erdigune komunikatibo bat bilatzera baitarama.

Iparraldea ezagutzea, ainitz jendeak etxea nolakoa den jakin baina nahiago izaten duelarik *kintalapolara* eguzki bila joatea ez da txantxetako gauza. Izan ere, Hegoaldeko askok ez du batere Iparraldea ezagutzen —geografiaz besterik ez naiz ari— eta beste ainitzentzat Carrrefour, Grand Casino eta Hendaiako hondartzan gelditzen da ezagutza guztia.

Bertako jendearekin harremanetan sartzeta, geure buruari atal hau Euskal herria denez oraino galdetzen diogun unean, interesgarria ezezki beharrezkoa ere bada. Bide bakarra menturaz, espainol eta gabacho garbatsak erantziz, oro euskaldun garena erdeiteko.

Hemengo euskal Irakas-kuntza laguntzea, badakigularik frantses agintariek zakutik eta zorrotik ahitu nahi digutela geurea den eskubide hau, irakas-kuntza euskaraz burutzeko aukerarik eman gabe, eta frantsesez egitera behartuz, epe labor batean beraienganatzeko ideia argiarekin. Horregatik ez digute sosik eman ez ematen, besteak beste, ikastolen kolegio eta lizeoaren eraikuntzarako baitakite gure erro sakonenetarikoa dugula hizkuntza.

Osagai guzti hauek umore onean trenpa eta elkar lanean gauzatuz, ez da ez makala erdiesten dena.

Zinez esperientzia ona izan da bizi izan duguna; gure ustez ugaltzeta balioko lukeena. Badugu eta Herri honetan ororen beharra gure izateari atxiki nahi badiogu. Funtsean, horrelako ekimenek hatsez betetzen baikaituzte, guk hasteko badugu asmoa ildo horretatik bideratzeko.

Eskerrik asko, mila esker uda honetan jin zaretanoi ekarri diguzuen laguntzagatik eta nola ez, erakutsi diguzuen norabidearengatik.

* SEASKAKO XALBADOR IKASTEGIKO KIDEA

USTEAK USTE

GEUREA ETA HERRIKOIA

Zorion dezagun Herri Irratia egun hauetan emandako urratsagatik; nola utzi jendearen aurrean agertu gabe Donostia eta Loiolako Herri Irratiek hartu duten erabakia?

Denok dakigu Euskalerriko komunikabideen munduan irrati hauek jokaturiko papera. Beti izan dira, hainbat jenderentzat, beharrezko erreferentzia. Herrikoia, geurea, herri irratia.

Azken urteetan, diru arazoek bultzaturik, beraiek nahi izango zuten baino sarriago Madrileko COPE delakoaren zentralarekin konektaturik ikusi edo entzun ahal izan ditugu. Gehiegi, zoritxarrez. Zaila egiten zitaizun, egia esan, betidanik geurea izandako irratia entzutea, antenan egoten ziren pertsoniak ez baitziren gure gustokoak. Ez eta Euskalerriko Herri Irratiko profesionariena ere, nire ustez.

Baina une eta garai txarrekin ere badute amaiera, bai. Aste honetatik aurrera, Madrilekoekin izan duten lotura eten eta autonomo bihurtuko dira gure Laxaro, Alberto, Mariano, Karnele eta irrati horietako denak. Zorionak!

Eta eskerrak zuen ausardia-rengatik. Ausardia, bai, hemendik aurrera diru aldetik, beharbada arazo gehiago izango duzuelako. Eutsi, geurea da eta! Ziur egon Euskadik eta Euskarak irabaziko dutela zuen sakrifizioari esker. Saia gaitzen denok proiektu berri honek aurrera jarrai dezan!

JOSE RAMON ELORTZA


Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako
erropa

Egizabal

Gizonezko eta
emakumeentzako
oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA



Mikel Arruti eta Fernando Muniozgueren, Normalkuntzaindiaren ideia bota zutenak.

Elkarlan estuagorako eskaerak entzun ziren jardunaldietan

Euskara Elkarteen Jardunaldietan, elkarlan estuagorako eta koordinaziorako deiak entzun ziren. Zentzu horretan egindako proposamen ausartenetakoa, euskararen normalizaziorako elkarlana bultzatuko lukeen erakunde bat sortzekoa izan zen. Iñaki Arruti eta Fernando Muniozguerenek bota zuten ideia hori, eta erakunde edo tresna posible horri 'Normalkuntzaindia' izena jarri zioten, erreferentzia soil gisa.

Normalkuntzaindia honek euskararen normalkuntzarako lehen tasun eta beharrak markatuko lituzke. Euskaltzaindiak euskararen corpus-aren ardura duen bezala, *Normalkuntzaindiak* euskararen status-aren ardura izango luke; instituzio ezagutua izan beharko litzateke, elkarlanerako gogotik sortua, faktore banatzaileak alde batera utzirik. Administrazioaren eta herri mailako mugimenduen tarteko espazio batean kokatuko litzateke normalkuntzarako instituzio hori. "Elkar ulertzera kondenatuta gaude,

eta beranduegi baino lehen heldutasuna erakutsi behar dugu", adierazi zuen Fernando Muniozguerenek, erakunde hori eratzen hasteko urratsak har zitezten proposatu zuten.

Elkarteen arteko koordinakunderen bat sortzea eskatzen zuten ahotsak ere entzun ziren, baina ideia hauek ez ziren ezer konkretutan gauzatu: izan ere, EKBko ordezkariak nabarmendu zutenenez, proposamenak aireratzeko bai, baina eztabaida sakonagorako biderik ez zen egon Jardunaldietan.

Badirudi, bestetik, koordinatzeko dei horiek egin zituzten artean, Jardunaldien antolatzaileei, AEDkoei, eskatzen zitzaizela horren buru izatea. Alabaina, herri-mailako lanean nahikoa egin behar dagoela eta, ez dirudi AEDk halako egitasmorik duenik epe laburrean. Edozein modutan, guztiek oso positibotzat jo zuten lehen elkarketa hau gertatu izana, elkarlanerako lehen urratsa elkar ezagutzea denez gero.

EUE eta autopista

Maltzaga-Urbina autopista egitekotan, Bilbo-Behobia edo A8 autopistakoa peajea ez litzateke luzatu behar, Euskal Ezkerraren iritziz. EUEren ustez, bi gaiak banatu egin behar dira, eta 2003. urtetik aurrera, A8a publikoa izan beharko litzateke. Orain, EUEren datuen arabera, 10.665 milioi PTako irabaziak ematen ditu Bilbo-Behobiak urtean. EUEk erantzukizunak eskatu ditu bere garaian adjudikatu ere egin zelako Maltzaga-Armiñon autopista, baina ez zelako egin. EUEren ustez, Maltzagakoaz gain, N-1 errepidearen hobekuntza ere ezin liteke alde batera utzi.

Makina-erraminta

Makina-erraminta sektorearen berregituraketa osoa diseinatu du Eusko Jaurlaritzak. Krisiari aurre egiteko, Euskal Autonomi Elkarteko enpresak sei taldetan batzea proposatu du Gasteiz. Talde horietarik indartsuena MCC kooperatiba taldeko bi enpresek osatuko lukete: Danobat eta Soraluek. Sektoreko gainerako kooperatibak, Fagor Arrasate barne, beste talde batean sartuko lirateke. Prozesuan, 500 lanpostu desagertuko lirateke enpresa hauetan, baina Jaurlaritzak ez du zehaztu zenbat exzedente izan behar diren enpresa bakoitzean.

PEUGEOT · TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerías, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE



Oraingo larrialdietako partearen sarrera.

Ospitalea berriztu eta handitzeko lanak hasi dira

Arrasateko eskualdeko ospitalea, Zentroa, esan ohi zaion bezala, berrikuntza obra garrantzitsuetan hasi da aste honetan. Dagoeneko, larrialdietarako zerbitzua eraberritzen hasi dira, eta urte amaieran edo 94eko hasieran, eraikuntzari goitik bi solairu gehitzeko lanari ekingo diote.

Larrialdietako sekzioko obrak amaitu eta gero, hiru hilabete barru, unitatea erabat berriztuta egongo da, instalazio modernoago eta osatuagoekin. Adibidez, bi kasu oso larrialdi berean tratatzeko moduan egongo dira. Bitartean, behin-behineko larrialdi unitate bat prestatu dute Zentroko beheko solai-

ruan (oinezkoentzako sarrera ospitaleko ate nagusitik da).

Bestetik, bi solairu berrietan unitate-mediko berriak eta 72 ospitale-ohere egongo dira. Obra hauek bi urtetan zehar burutuko dira: datorren urtean solairu bat martxan jartzeko asmoa daukate, eta 95ean bestea.

Obrekin, zentroak 2.000 metro karratu hartuko ditu, eta zerbitzu mediko berri bat jarriko du: ingresatu beharrik gabeko zirujua, zortzi ohe berezirekin. Lan hauetan 160 milioi Pezeta inbertituko dira, 40 milioi larrialdietako unitatea berritzeko, eta 120 milioi ospitaleari bi solairu gehitzeko.

Ura erabiltzeko araudia

Ur zerbitzu munizipalaren erabilera zuzena arautzen duen araudia onartu du berriki Udalak. Ur-hoditerian baimenik gabeko loturak egitea, ura arautu gabeko zereginetarako erabiltzea edo neurtzeko aparailuak manipulatzeko zigortu egingo dituzte araudi berriarekin. Zigortuei ura moztuko zaie eta 5.000 PTAko isuna ere ezarriko zaie.

Arrasatearren erosketa ohiturak

Arrasateko merkataritzaren egoera eta herritarrok erosteko ditugun ohiturak jakiteko, inkesta bat egiten hasi dira. Arrasate erdiguneko Ibai-Arte dendari elkarteak eskatu zion ikerketa Udalari, eta honek LKS etxeari enkargatu dio azterketa. Merkataritzaren gainbeheraren arrazoiak neurtzeko inkesta bat izango da hau, ondoren joera hori zuzentzeko neurriak hartzeko. Udalak herritarren kolaborazioa eskatu du inkesta egiteko orduan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Lanpostuak gordetzeko erantzukizuna eskatu diote UCEMI

UCEM Korporazioko enpresen egoera kaskarra dela eta, proposamen bat egin dute publiko hiru sindikatuk, LAB, CCOO eta ESK-k, UCEMeko ugazabei erantzukizunak eskatuz, Transformados Metalicos (96 langile) eta Cerrajerera (83 langile) enpresak bizirik mantentzeko, lanposturik suntsitu barik. Gaur egun, etorkizun iluna dute bi enpresa horiek.

Sindikatu horiek Donostian eskaini zuten prentsurreko bat beren jarrera azaltzeko. "Guk, egungo enpresariak jarraitzea exigitzen dugu, baina serio apostatuz". UCEMek ez balu erantzukizunik nahi, orduan ondarea behintzat Arrasaten geratzea eskatzen dute. Cerrajerako te-



UCEM taldeko Roneo enpresako langileen manifestazioa.

rennoetan, San Andresetik Zaldibarreraino 70.000 metro karratu daude, eta UCEMek espekulatzeko erabil ditzakeen beldur dira langileak.

Ondarea herriaren esku geratuko balitz, ideien

konkurtsu publikoa egitea proposatzen dute langileek, ideia enpresarialak erakartzeko, eta ondarea haiei eskaini ordez, egungo lanpostuak edo gehiago ziurtatzeko. "Proposamen hau Arrasateko indus-

tri eta zerbitzu-sarea gorde eta indartzearen aldeko apostua da", diote sindikatuek.

Hiru sindikatu hauen proposamenak erantzun egiten die nolabait duela bi aste ELA sindikatuak plazaratutako ideia bati. Orduan ELAk proposatu zuenez, ondarea langileen esku geratuko balitz, elkarte anonimo laboral edo SALak egin zitezkeen UCEM taldeko enpresetan. Beste sindikatuek baztertu egiten dute ideia hori; beren ustez ELAk ez du zuzen jokatu besteekin kontsultatu gabe proposamena bere kasara egiterakoan. Gainera, SALak eginez gero, lanpostuen erdiak galduko lirake eta hori desindustrializazioaren beste urrats bat litzateke.


MARKETING Salmentak

ESMER

Marketing eta merkatu ikerketak

Formazioa: Arrakastaren giltza

Informazioa 79 78 61 tfnoan (Arratsaldeko 7etatik 9etara)





belde

Iñigo Aizpurua eta **Jaione Olabe** atxabaltarrak, joan zen irailaren 4ean ezkondu ziren. Ezkon-bidaian, Indiarra joan ziren.



Auto zaharrak bai, baina zeinen dotoreak, ezta?. Larunbatean, herriko plaza bete zuten auto zaharrek. Bertara

hurbildu zirenek, denetik ikusteko aukera izan zuten. Ikusten denez, autoek ere izan dute beren bilakaera.

Elman egindako kafe-errota ONCE zozketako txartel batean agertu zen, urriaren 22an alegia. Bertan jartzen

duenez, 1930an egindakoa da. Noizkoa ez, baina jadanik museo-rako tresna dela, denok gogoratzen

dugu. Batek baino gehiagok zakarrontzira botako zuen berea, ezertarako balio ez zuela pentsatuz!

ONCE

MOLINILLO DE CAFE ELMA.

1930

Viernes 150.000.000 ptas.

200 ptas.

1993
22 Oct.

ONCE

SERIE 174
5 CINCO
4 CUATRO
2 DOS
7 SIETE
1 UNO

TXOKO

TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467

IZEN PROPIOAK

● Maria Visitación

Zabaleta, 23 urte, ingurugiro eskolako irakasle aukeratu dute. Maria Visitación bergarakoa da eta magisteritza eginda dauka. Aurrez ere, ingurugiro eskolan lan egin zuen bekadun bezala.

● Ana Mugerza Imaz,

31 urte, Santa Barbara parkeko lorazaina izango da. Ana, arrasatearra da.

● Lanpostu sustapenen barne, bi langile kontratatu ditu udaletxeak. **Juan**

Carlos Alvarez, iturgina, 29 urte, eta **Felipe Moreno Martinez**, galdaragina, 42 urte. Biak arrasaten bizi dira.

● Kutzak hilabete honetan zozketatu duen kotxea,

Francisco Cabello

Soriano eta **Maria Martin Sacristani** tokatu zaie.




Igandean Donostian korritu zen nazioarteko maratolean, takarraran egin zuten AEDren kamiseta hauek ere. 50ren bat kamiseta atera zituzten AEDkoek, eta Arrasate Kirolak dendan eskura zitzaketen parte-hartzaileek. Gutxigorabehera 20ren bat kamiseta ikusi omen ziren Donostian. Datorren Behovia-San Sebastian lasterketarako ere, nahi duenak eskura ditzake kamiseta hauek.



Danok Bat, herriko elkarte jai giroan bildu ziren txokoari zaharrena, laster bota egingo agur esateko. Makina bat kontu eta istorioren lekuko izan den etxea ezin mugitu. Hori

bai, bazkideek beste elkar-teetara joaten jarraituko dute, berria bukatu bitartean.



ERAIKUNTZAK


Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE



Kirol jantzietan
ARABA ETORBIDEA

kalitatea, preziozik onenean
ARRASATE
TFNOA. 77 14 86



KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Astore, Reebok, Nike,
Adidas, Mito, Karhu, Avia,
Saucony, Quicksilver, Libero,
Linea 7, Asics, Salewa, Bo-
real, Bestard, Ellesse,
Lutha, O'Neill, Think Pink...



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño, 8
Tfnoak: 79 46 12 / 77 12 47
ARRASATE

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Guztiak irabazi edo galdu

5. jardunaldiaren ostean, gauzak argitzen doaz talde desberdinetan. Guztietan daude partidu guztiak irabazi dituzten ekipoak, eta baita guztiak galdu dituztenak ere. A eta B taldeetan oraindik parra ageri dira talderen batzuk goikaldean, baina C eta D taldeek lider sendo bakarra daukate. C taldeari dagokionez, adibidez, bi liderren arteko derbia izan genuen asteburuan, Los Heredia -

Nabarros, eta Herediatarrak nagusi-tu ziren tanto bakarragatik (aste honetako aleko argazkiak partidu horretakoak dira, hain zuzen). Partidu guztiak galdu dituztenen artean, aipagarria da beharbada Auf dem Koffer taldearen ibilbidea: iaz nahiko txukun jardun zuten azkenean 10. egin arte, baina oraingoan ez dute bururik jasotzen eta gol gutxien sartu duen taldea da.



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5^a-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	5	5	0	0	25	5	10
SUM. UGARTE	5	5	0	0	33	7	10
ARLUTZ	5	5	0	0	23	7	10
ANBOTOSTE KT	5	4	0	1	18	7	8
JEY JULIWER	5	3	1	1	20	10	7
BERANGO SUK.	5	3	0	2	15	8	6
ZOTZ	5	3	0	2	17	22	6
KOKXAS	5	2	1	2	16	13	5
BIZKORRAK AVE. T.	5	2	1	2	14	16	5
UGLYS TXINATO	5	2	0	3	17	18	4
ALLA KUIDAUS	5	2	0	3	16	19	4
SOKOAKOAK	5	2	0	3	13	21	4
WHISK. LINDE	5	2	0	3	11	16	4
BAYERN LENITZ	5	2	0	3	8	15	4
RESAKAS	5	1	1	3	15	18	3
IKATZ	5	1	1	3	14	23	3
FRAGUEL GOL	5	1	1	3	7	11	3
ETXE MOBIL.	5	1	0	4	10	25	2
EUSKAL INDARRA	5	1	0	4	9	23	2
AUF DEM KOFFER	5	0	0	5	5	22	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
LOS HEREDIA	5	5	0	0	17	8	10
FOSFOROS	5	4	1	0	33	6	9
ARR. KRISTALDEGIA	5	4	1	0	25	12	9
NABARROS	5	4	0	1	15	7	8
MIKELOS	5	3	1	1	20	11	7
KIRTEN TROPEL	5	3	1	1	18	11	7
PEPELUS	5	2	1	2	20	11	5
LOS DALTON	5	2	1	2	25	21	5
HIREI	5	2	1	2	21	21	5
LEYA	5	2	1	2	18	27	5
KAKAJAURI	5	1	2	2	13	12	4
FOTO IMAGEN	5	1	2	2	17	17	4
ADELAIDA HAIZEA	5	1	2	2	10	12	4
SIBILIUS ROVER	5	2	0	3	10	13	4
TXOKO TABERNA	5	2	0	3	10	16	4
BORROCKN ROLL	5	2	0	3	12	30	4
POTROSORRI	5	1	0	4	8	14	2
MOTZ	5	1	0	4	12	17	2
MZK GANBELAS	5	0	2	3	10	21	2
CORINTO TABERNA	5	0	0	5	11	38	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	5	5	0	0	42	14	10
ZULOAK	5	5	0	0	26	14	10
LEINTZ GARAGAR.	5	4	1	0	28	10	9
IRATI STS	5	4	0	1	22	9	8
ALPEN KRAUSSER	5	4	0	1	27	23	8
DANOK LAGUN	5	2	3	0	13	8	7
BUKANAK	5	3	0	2	23	13	6
TRONKOTEAK	5	3	0	2	22	18	6
ARR. KIROLAK	5	3	0	2	16	14	6
NOTXINGAN FLO.	5	2	1	2	15	17	5
GANBELAS	5	2	0	3	17	17	4
BETRAYER	5	2	0	3	23	24	4
OOOLE	5	2	0	3	13	20	4
MONTERREY Z.B.	5	1	1	3	16	17	3
OJO AVISORE	5	1	1	3	20	26	3
FABCY BOIS	5	0	2	3	15	23	2
KOPYPREST	5	1	0	4	13	24	2
EXC. LETE	5	0	2	3	11	24	2
DIEGO ANTONIO	5	0	1	4	11	26	1
ATXANTA KE TE...	5	0	0	5	9	41	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	5	5	0	0	35	9	10
ZULUS	5	4	1	0	34	15	9
CARBUIROS	5	3	2	0	24	9	8
REVOLUTION ROCK	5	4	0	1	22	11	8
TOVARITX	5	4	0	1	19	14	8
NUOVO TABERNA	5	3	1	1	17	9	7
LASO ARREGI	5	3	1	1	17	11	7
POTROAK LORATEGI	5	3	1	1	25	14	7
TUTTI FRUTI	5	2	2	1	26	17	6
BODISCA	5	2	1	2	15	16	5
KRISKIBALDA	5	2	1	2	12	14	5
FRANCISCANERR	5	2	0	3	19	20	4
GURE LEKU	5	2	0	3	12	18	4
LOS DIMY	5	0	3	2	12	17	3
MACCABI DE LEV.	5	1	1	3	11	17	3
ILUNA TABERNA	5	1	1	3	14	29	3
KOAK LAIT	5	1	0	4	13	25	2
SOLANO 7 MARES	5	0	1	4	11	36	1
EZKINAKO HONTZAK	5	0	0	5	9	25	0
ELISABETH	5	0	0	5	11	32	0

Autokarabanak alokatzen dira!



AMETS

T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkotz piezak eta osagarriak.




ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2 (Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!

Tallerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

RUTH GATZAGA



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



Datorren astebururako honako partidu hauek nabarmenduko ditugu, bai taulan ondo kolokatuta dauden taldeen artekoak, eta bai behean burruka larrian dabiltzanen artekoak: Auf dem Koffer - Etxe Mobiliario, Irati STS - Alpen Krausser, Pepelus - Kakajauri, eta Solano 7 Mares - Koak Lait.

BELARRIRA

◆ **Arbitro bikaina.** Irati STS taldeak abisua izan zuen joan den astean, hemen komentatu genuenez, arbitratze txarragatik. Zigor gisa, berriro egokitu zitzairen partidu bat zuzentzea, eta beste arbitro bat bidali zuten. Komentatu digutenez, bikain aritu zen arbitro berria, zoriontzeko bezalako maisutasuna agertu zuen Gure Leku - Tovarixtx partiduan.

◆ **Porteria apurtuta.** Zal-dibarko porterietako bat erdi-apurtuta azaldu da. Apropos egindako kaltea izan dela dirudi, gainera. Porteriak antolakuntzarenak dira, eta horregatik kurioso ibiltzeko gomendatzea eskatu digute antolakuntzatik.

◆ **Desmadratu barik.** Aurreko bi jardunaldietako tirabirak, zigorrak eta abisu edo zigor-mehatuak ez dira errepikatu azken asteburu honetan. Antolatzaileak larri samar zebiltzan, gauzak desmadratuko ote ziren beldur, baina ikusi da Zal-dibarko txapelketa bide onetik doala.

EMAITZAK

A TALDEA

Auf dem Koffer 0 - Berango Sukaldeak 4
Anbotoste KT 6 - Etxe Mobiliarioa 1
Alla Kuidaus 2 - Fraguél Gol 3
Arlutz 4 - Jey Juliwer 3
Bayern Lenitz 3 - Resakas 2
Bizkorrak Avenida Tab. 1 - Suminis. Ugarte 4
Euskal Indarra 1 - Uglyx Txinato 3
Ikatz 3 - Zotz 4
Koxkas 1 - Trikiti 3
Sokoakoak 3 - Whiskeria Linde 1

C TALDEA

Txoko Taberna 0 - Fosforos 6
Arrasate Kristaldegia 6 - Hirei 3
Adelaida Haizea 1 - Kirten Tropel 1
Corinto Taberna 2 - Los Dalton 7
Borrocn Roll 0 - Mikelos 4
Foto Imagen 3 - MZK Ganbelas 3
Kakajauri 1 - Pepelus 1
Leya 4 - Sibilius Rover 2
Los Heredia 2 - Nabarros 1
Motz 2 - Potrosorri 3

B TALDEA

Atxanta ke te merece 1 - Bukanak 7
Argi Ibil 6 - Diego Antonio 1
Alpen Krausser 7 - Fanci Boys 6
Arrasate Kirolak 0 - Irati STS 5
Betraye 3 - Leintz Garagardotegia 10
Danok Lagun 4 - Notxingan Florest 0
Excavaciones Lete 2 - Ooole 5
Ganbelas 3 - Zuloak 6
Kopyprest 4 - Ojo Avisore 6
Monterrey Zubi Bel 1 - Tronkoteak 4

D TALDEA

Bodisca 3 - Elisabeth 2
Iluna Taberna 2 - Franciscanerr 5
AC Surcos 10 - Kriskibalda 1
Nuevo Taberna 2 - Laso Arregi 4
Carburos 2 - Maccabi de Levantar 1
Ezkiñako Hontzak 4 - Revolution Rock
Gure Leku 2 - Tovarixtx 5
Koak Lait 3 - Zulus 9
Los Dimy 3 - Solano 7 Mares
Potroak Lorategi 2 - Tuttifrutti 2

GABONETARAKO: gida Komertziala
ADI!

Profesional, dendari, enpresari
Zuk nahi baduzu, dohainik ere ager zaitezke

ARRASATE PRESSEkin batera bidaliko da etxeetara
Dei egin 77 08 15 tfnora

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 6

Zaldibar

- 08.50 Corinto Taberna - Mikelos
- 10.00 Foto Imagen - Pepelus
- 11.00 Elisabeth - Tuttifrutti
- 12.00 Carburos - Revolution Rock
- 13.00 Betrayed - Notxingan Florest
- 14.00 Argi Ibili - Fancy Bois
- 15.00 Alpen Krausser - Irati STS
- 16.00 Ganbelas - Ojo Avisore
- 17.00 Iluna Taberna - Kriskibalda
- 18.00 Auf dem Koffer - Etxe Mobiliario
- 19.00 Adelaida Haizea - Los Dalton

Iturripe A

- 10.00 Bayern Lenitz - Suministros Ugarte
- 11.00 Berango Sukaldeak - Whiskeria Linde
- 12.00 Bukanak - Tronkoteak
- 13.00 Fosforos - Potrosorri
- 15.00 Nuevo Taberna - Maccabi de Levantar
- 16.00 Alla Kuidaus - Jey Juliwer
- 17.00 Danok Lagun - Ooole
- 18.00 Gure Leku - Zulus

Iturripe B

- 10.00 Leya - Nabarro
- 11.00 Anbotoste KT - Fraguel Gol
- 12.00 Atxanta ke te merece - Diego Antonio
- 13.00 Kakajauri - Sibilius Rover
- 15.00 Ezkiñako Hontzak Tovarixtx
- 16.00 Arlutz - Resakas
- 17.00 Los Heredia - Motz
- 18.00 Bizkorak Avenida Tab. - Uglys Txinatio

Igandea 7

Zaldibar

- 08.50 Arrasate Kristaldegia - Kirten Tropol
- 10.00 Kopyprest - Monterrey Zubi Bel
- 11.00 Arrasate Kirolak - Lenitz Garagardotegia
- 12.00 Borrockn Roll - MZK Ganbelas
- 13.00 Koxckas - Sokoakoak

Iturripe A

- 10.00 Excavaciones Lete - Zuloak
- 11.00 Euskal Indarra - Zotz
- 12.00 AC Surcos - Laso Arregi
- 13.00 Koak Lait - Solano 7 Mares

Iturripe B

- 10.00 Txoko Taberna - Hirei
- 11.00 Bodisca - Franciscanerr
- 12.00 Ikatz - Trikiti
- 13.00 Los Dimy - Potroak Lorategi



Puntualitate-falta kroniko samarra dago txapelketan

Aste honetako kronikan ez dauka antolakuntzaren partetik zigorrik edo abisurik transmititu beharrik, nahiz eta ohartxoren bat merezi duen talderen bat edo beste badagoen hortik zehar. Motiboa: puntualitate falta. Zaldibarko arauk zehazten dutenez, partidua hasteko 10 minutuko atzerapena gerta liteke gehienez, eta ekipoa kantxaratzeko baten faltan egon liteke bakarrik: atezaina eta lau jokalaria gutxienez. Horiek bostok hamar minututan azaldu ez badira, taldea txapelketatik kanpo geratuko litzateke.

Arauaren zorrotasuna nahiko estua da, baina antza denez, bati baino gehiagori barkatu egin izan diote

orain artean. Adibidez, Resakas taldeak bere izenari ohore egiteko ohi-tura omen dauka, eta biharamun, aje edo dena delakoaren ondorioz, jokalaria alfer samar batzuk ditu.

Joan den asteburuan, adibidez, hiru jokalaria eta atezainarekin hasi ziren jokatzen. Aurreko denboraldietan ere hala-hola ibili izan dira Resakasekoak, eta oraindik ez dute txapelketarik amaitu, beti izan dute zerbait, eta kanporatu egin izan dituzte.

Dena den, puntualitate falta ez da talde horrena bakarrik, eta nahiko gaitz hedatua da. Arbitroak ere erdi-purdi ibiltzen dira, eta baten batek kale ere egin izan du dagoeneko.

Musikazaleentzat Bideo-zinta aparta

Beethoven-en 9. Sinfonia Kiev-eko Orkestra
+ Goiko-Balu Abesbatza

Dei egin 77 08 15 tfnora





Roman Sudupe diputatuak gogoratu duenez IGPak ez dira binkulanteak eta a-8ko peajea luzatzea ezinbestekoa izango da.

Maltzaga-Urbina Alde eta kontrako iritziak plazara

Luis Fernandez

Joan den asteburuan itxi ziren Interbetzio Gune Partehartzailleetarako buzoiak, Maltzaga-Urbina inguruan eztabaidatuko diren alternatibentzat ireki ziren lehialak. Proiektu ofizialak bertara aurkeztu dira; baita autopista egitasmoari planteatzen zaizkion kritika eta alternatibak ere. Bitartean, bi plataforma eratu dira, autopistaren alde eta kontra. Iritziak plazan daude, eztabaidarako garaia ireki da.

Aste honetan buzoietako proposamenak biltzen aritu dira IGPen prozesua antolatu duten Gizarteaz gabinete soziologikoak. Urri guztian egon ziren zabalik IGPetako buzoiak, eta guztira 51 idazki aurkeztu dira bertara. Hala ere, proposamenetako batzuk iritzi hutsak dira, Gizarteaz-ekoek adierazi digutenez, alternatiba edo arrazoi konkrituak azaltzen ez dituztenak. Beste talde batzuek idatzi berbera aurkeztu dute toki batean baino gehiagotan. Azkenean, beraz, 30 bat txosten geratzen dira eztabaidarako, eta horien artean daude administrazioen proiektu ofizialak,

alderdien iritziak, eta zenbait udalena ere bai.

Orain, iradokizunak egin dituztenekin kontaktuan jarriko dira Gizarteaz-ekoak eta eztabaida programa bat eratu dute. Eztabaida programa hori Gune guztietan errepikatuko den azalpenen gorabeherak zehazteko egingo da. Azaroaren 17an, bilera bat izango dute Gizarteaz-ekoek Buzoietara aurkeztu direnekin, eta bertan programa kontsentsuatzan saiatuko dira. IGPetan parte hartuko duen jendearen hautaketa aurrera doa, 350 pertsona behar dira guztira, eta 110ek baietz erantzun dute dagoeneko. Zenbait

tokitan, dena den, zailtasunak daude jendea inplikatzeko, Donostian kasu, Maltzagako auziak nahiko urrundik ukitzen diela dirudielako.

IGPetarako buzoietara aurkeztutako iritzietako batzuek kritikatu egiten dute prozedura bera. Eguzkiren proposamenean IGPei buruzko beren "eszeptizismoa" azaltzen dute, "administrazioiko buru koalifikatuek dagoeneko ziurtzat jotzen baituta autopista egingo dela". Joan den astean, Foru Aldundiko Roman Sudupe garraio diputatuak ardatza eraikitze-ko "modu bakarra" A-8ko peajea luzatzea dela esan

zuen, eta IGPen prozesua “binkulantea ez dela izango” gogoratu zuen.

ARRASATEN SEI TXOSTEN

Arrasaten sei proposamen aurkeztu dira buzoira, eta horien artean Herri Batasunak alderdi gisa aurkeztutakoa nabarmendu liteke. HBren iritziz, “nazioarteko trafikoari eman behar zaion soluzioa ezin dugu nahasi gure barne trafikoarekin”. Kanpotarrentzako pasabideak badaudela uste du HBk, A-8 (Bilbo-Behobia) eta A-68aren (Galdakao-Miranda) arteko lotura, N-1ekoa edo Andoain-Irurtzun-Tutera ardatza Mediterraneo alderakoa.

Naturari ekar diezaizkiokeen kalteez gain, HBren ustez autopistak “hipotekatu egingo lituzke beste zenbait errepideren hobekuntzak, edo gutxienez, oso baldintzatuta utziko”. Inguru urbano eta industrial batzuen garapena ere “hipotekatuta” geratuko litzateke, lur-okupazio handia lekarkeela autopistak.

Bere iritzia plazaratu duen beste alderdi bat Euskal Ezkerra izan da. Alderdi honen iritziz, ez da bidezkoa A-8ko peajea luzatzea beste autopista egiteko. Horrez gain, bere garaian Maltzaga-Armiñon proiektua ez egin izanagatik erantzukizunak eskatu behar ko liratekeela uste du EUEk.

Bestetik, Herri Batasunak bailararen premien zehaztapen bat ere egiten du bere idazkian, eta komunikazioak hobetzeko hainbat puntu konkreturako lanak proposatzen ditu. Adibidez, sahiesbiak hobetu daitezkeela, Arrasatekoan ibilgailu motelentzako 3. karril gehituz Oxinatik gorantz. Arlabanarako, bestetik, igotzeko bi karril berri eta bi tunel egitea proposatzen du.

Arlabanekoa hobetzea da, bestetik, Gatzagako beste herri inizatiba baten proposa-

men nagusia. Gatzagan kezka bizia sortu du autoq pista egitasmoak, eta sinadura-bilketa baten ostean, alternatiba bat aurkeztu dute IGPetako prozesura.

“DEBA BAILARA BIZI-BIZIRIK”

IGPetatik aparte, bi ekimen herritar eratu dira Maltzaga-Urbina proiektuaren inguruan. Bata, autopistaren aldekoa (ikus J.M. Kruzetari elkarrizketa), eta bestea kontrakoa, Deba Bailara Bizi-Bizirik. Talde honek agiri batean azaldu duenez, “autopistaren alde azaltzen diren argudioak zentzugabekeria iruditzen zaizkigu. Balantza batean jarrita, kalteak askoz pisutsuagoak dira”.


Deba Bailara Bizi-Bizirik Arrasaten eta Bergaran zenbait bilkura egin ondoren eratu den taldea da. Herritarrak eta talde ekologistak biltzen ditu (hauen artean eskualdeko Eki, Eguzki, Amilotx eta

A

**utopista batek
ez du bailara bat
garatzen, hiri
handiak lotu
baizik”, dio
Deba Bailara
Bizi-Bizirik
taldeak.**

Mendia Bizirik), eta Bailara osoan bere zereginaren berri ematea du helburu.

Plataforma honetakoei proiektuari ikusten dizkioten kalte horien artean, “bailararen orografia estua” eta autopistak ekarriko lukeen “eraso ekologiko galanta” nabarmetzen dituzte Deba Bailara Bizi-Bizirik-ekoei. Autopistaren aldeko argudio ekonomikoek funtsik ez dutela uste dute plataforma honetakoei, eta hortaz, Deba Behan A-8 egon arren, horrek garapenik ez duela ekarri diote. “Autopista batek ez du bailara bat garatzen, hiri handiak lotu baizik”, diote beren agirian. Gainera, lotura hori ardatz europar gisa planteatzean, bertakoentzako behar kanpotarrentzako bidea dela aipatzen dute Deba Bailara Bizi-Bizirik-ekoei. Azkenik, finantziabidea ere kritikatzan dute, eta “onartezina” deritzote A-8ko peajea luzatzeari.



Gizarteaz gabineteko Luxio Ugarte soziologoa eta Xabier Zubizarreta alkatea.

● *Jose Mari Kruzeta*

Autopistaren aldeko plataforma

Maltzaga-Urbinaren aldeko plataforma herritarra eratu da Eibarren, bertako zenbait jenderen inguruan. Bereziki Deba Beheko kezketatik sortutako inizatiba honek partaide den Jose Mari Kruzetarekin hitz egiteko aukera izan dugu berriki.

— Nola sortu zen zuen inizatiba hau?

— Gure artean bazegoen pentsamendu bat: behar-beharrezkoa zela Urbinatik Maltzagara zeozer egitea. Arlabanek edo Urkiolak ez dute emoten behar moduko zerbitzurik transporterako, eta hortxitik jaio zen. Egon ginen berbetan, peritoen elkarteko presidentea, neu eta beste batzuk, eta agertu zen premia zegoela zeozer egiteko, Eusko Jaurilaritari eta Diputazioei bultza egiteko eta egiteko erabaki bat lehenbailehen hartzeko.


— Eginkizun konkreturik badaukazue buruan?

— Gure asmoa IGP edo NIP hauetan parte hartzea da, edo esan jendeari parte hartzeko, ardurak hartu ditzala

jendeak, denontzako da inportantea. Gure ustez desarroilorako, Deba ibar guztian, bai Deba Behean eta bai Deba Garaian, behar-beharrezkoa da infraestruturak hobetzea. Hiru edo lau helburu dauzkagu. Bata da, lehenbailehen egitea. Bigarrena, pentsatzen dugu autopista bat behar dela, hemen autobiarekin ez dela ezer erabakiko. Hirugarrena, ekologia gorde beharra, edozein modutan ezin dela egin. Hirugarrena, ahal den merkeena, bai guretako herritarrentzako, eta bai instituziontzako.

— Zergatik ez luke balioko autobiak?

— Erraza da hori esplikatzea. Pentsaizu orain dela 150 edo 200 urte Parisko bulebarrak Hausmann arkitektoak egin zituenean, emon ziela zabalera ikaragarria. Orduan karroekin ibiltzen ziren, eta 200 edo 150 urtera, haiek bulebarrak, hain zabalak egin zirenak, kotxez beteta daude. Ikusten duzu zer pasatzen den Bilbo-Behobian: ja erdi saturatuta dago. Merkatu komuna geroago eta gehiago handitzen doa, eta hartuemanak Europarekin eta Euskal Herri



barruan berdin. Behar ditugu komunikazio onak, industria-erentzat behar-beharrezkoa da estruktura hau. Estruktura estu bat egiten bada, 10-15 urtera saturatuta geratzen da eta egin behar da gauza bat, gerorako. Zer pasatzen da? Trenbideek daukate zabalera bat Espainian eta inkompatibleak dira Europarekin. Garraio guztia kamioiekin egiten da, eta zelan hartuemanak desarroilatzen doazen, trafikoa gero eta gehiago izango da.

— Deba Beheak badauka autopista, baina industria, atzera joan da azken urteetan.

— Atzera joan da bai. Baina autopistak lagundu egiten du. Pentsaizu egin izan balitz autopista hori, zer izango zen. Eta orain dagoena ere

estua da, hemendik 10 urtera hori total saturatuta dago.

— Maltzagakoaren peaje-ekin batera, Bilbo-Behobiako peajea luzatzea proposatzen dute.

— Bai, bai. Ni ez nago horren alde. Nik uste dut estudio sakon bat egin behar dela, hor berba asko egin behar da oraindik. Gauza bat da egitea, beste bat zelan finantziazten duten, eta nik uste dut medio asko daudela finantziazteko. Bestela izango litzateke denok pagatzera, bertikoa, eta hori ezin liteke.

— Bailara estua daukagu, lau bide sartzeak obra galanta dakar.

— Desdoblatu egin beharko litzateke, nire ustez; horretarako teknikoek esan beharko dute. Guk esaten duguna da, egitekotan, ondo egitea, ez txapuz bat egitea. Txapuzak nahikoa dauzkagu. Komeni da, egiten bada, erabakitzeke oraingo problemak eta geroakoak, bestela hobe ezer ez egitea.

● **“Gure ustez, garapenerako behar-beharrezkoa da infraestruturak hobetzea Deba ibar guztian”**

Saskibaloian inoiz baino joko hobe, baina ikusle gutxiegi

Arrasate Saskibaloia taldea bere denboraldi bikainena ari da jokatzen 93-94 hone-tan. 2. mailako lider garai-tugabea da Arrasate, joan den larunbatean Loiola-Indautxuri Musakolan 96-93 irabazi ondoren. Bilboko talde indartsu horri irabaz-ten zaion lehenbiziko aldia izan da hau, eta hortaz balio bikoitza du garaipenak.

Oso partidu polita eta lehia bizian jokatutakoa izan zen joan den asteburukoa. Markagailua zalantza ba-tean ibili zen batzuen eta besteen alde, sekula ere ez diferentzia handiegiekin. 30 segunduren faltan, Arrasate puntu batez zegoen aurretik, baina Indautxuk zuen baloia. Biterik falta egin zion bilbotar bati, baina honek, oso urduri, ez zuen tiro li-brean saskiratzerik lortu. Hurrengo jokaldian, baloia kontrolatu zuen Arrasatek eta Fernandezek lortu zuen azken saskiratzea.

Honenbestez, sei partidu eta sei garaipenekin, basket taldeak ez dauka ezer demostratu beharrik: sekula ez bezala ari dira jokatzen; denboraldiko errebelaziotzat jo ditzakegu mon-drauetarrak, eta lehengo egunean jokatutako neurrian 2. mailako edozein talderi irabaz diezaitete.

Hala ere, badago alderdi ilun bat, ikusle gutxi. Txus



Partidu disputatu eta bikaina izan zen larunbatekoa.

Brizuela entrenatzaileak joan den eguneko partiduan komentatu zigun: "Sekulako pena daukat, gaur 300 pertsona etorri dira. Gaurko partidua ona zen, joko onekoa, eta nire ustez beteta egon beharko litzateke, zeren joko ona egiten dugu". Kluba ikusleak erakartzen saiatu da, partiduetan egiten diren sariketen bitartez, baina erantzuna ez da nahi bezain ona. Ea lidergo eta joko bikain honek animatzen duen jen-

dea.

Ligarekin jarraituz, larunbat honetan Errioxako Cantabria taldearen kontra jokatzen du Arrasatek. Ez da partidu erraza izango, bereziki Errioxan nahiko etxerakoiak omen direlako arbitroak.

Horrez gain, Logroñoko Cantabria taularen behelaldean dago, baina azken jardunaldian sorpresa eman zuten eta Ordiziari irabazi zioten.

LABURRAK

Bolada onaren etena

Aspalditik ez zuen Mondrak Atxabalpen galtzen, baina Tolosaren bisitaldiak bolada onaren etena ekarri zuen (0-1). Nagusitasuna etxekoena izan zen partidu osoan, baina partidu hasieran tolosarrek gola egin ondoren, ezin izan zuen markagailua zuzendu Mondrak, Tolosak oso defentsa ona eratu zuelako. Hurrengo bi partiduak kanpoan ditu Mondrak, Zalla eta Santurtzi, eta Zeziaga entrenatzaileak positiboak eskuratzeko aukera onak direla uste du.

Eskubaloiko derbian garaipena

Eskubaloi taldeak bost partidutik bost irabazi ditu. Azken jardunaldian, Aloña Mendiko oñatiarren bisita izan zuten Iturripen, eta 18-15 emaitzarekin irabazi zuten derbia. Honebestez, lidergoa Pasaiarekin batera dauka Arrasatek, nahiz pasaitarrak aurretik izan average hobe eta dutelako. Plantilla zabala du Arrasatek, eta orain arteko partiduetan, behin markagailua nasaitu orduko, suplenteei uzten zaie jokatzen, eta horregatik pistoia apur bat jaitsi izan da zenbait partidutan eta emaitzetako aldeak ez dira izan horren handiak. Hurrengo zita: Legazpira bisita zaila.

Ferrerías. 79 87 62

IBARRA
Garajea S.L.

EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

PENALTIAK

● **Porrie hasi da! Mondrak asteburuan zer egin behar duen asmatzea da kontua. Astero, ARKOn egoitzan edo Arrasate Kirolak dendan utzi behar da pronostikoa, izenabizen eta telefonoa jarri, orritxo batean. Saria: astero, 10.000 PTako bonoa Arrasate Kirolak erosteko. Joan den asteko lehen porrie Ignazio Izarzelaia irabazi zuen, 10 asmatzaileren artean.**

● **Ikaspirola programak pilota eskola-umeen artean indartzea du helburu, eta Gipuzkoan ibili da martxan azken urteetan. Orain Arabara hedatuko da plana, eta Hasier Mujika arrasatearra izango da Arabako Ikaspirolaren arduraduna.**

Dirulaguntzen auzia tratatuko da Oñatiko topaketa batzuetan

Datorren azaroaren 19an Deba Garaiko kirol politikari buruzko topaketak izango dira Oñatin. Antolatzaileak Deba Garaiko udal kirol zerbitzuak dira, eta kezka batetik sortu da inizatiba hau: izan ere, kirol talde eta erakundeen arteko harremanen gaiak makina bat tira-bira eta gatazka sortu du azken urteetan. Horregatik, "gai honi buruz zer esanik dutenei deitu diegu", diote udal kirol zerbitzuetakoek, "elkartu asmoz eta esan beharrekoak esateko, ea denon artean zerbait egingen dugun eta Euskadiko kirolaren alde aurrerapauso bat ematen dugun".

Topaketen ardatz nagusia dirulaguntzak izan-



Kirol askotan, dirulaguntza gutxi dutela bistakoa da.

go dira. Alde bakoitzak bere ikuspuntua eskainiko du. Erakundeen aldetik, Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak eta zenbait udalek erabiltzen dituzten irizpide eta formulak azalduko dituzte. Beste aldetik, klubetako ordezkariak beren

ikuspuntua azalduko dute. Arrasatek, azken hauen artean, Jesus Mari Herrero hartuko du parte, Eskubaloi taldeko ordezkari gisa. Instituzioetatik ere partaidetza nabarmena egongo da, besteak beste, Joseba Arregi Kultura sailburuarena.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 0 - Tolosa 1
Emakumezkoak: Mondra 3 - UDA 3
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 0 - Urola 1
2. jubenila: Arrasate 5 - Gazteak 1
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 2 - Mutriku 4
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 1 - Almen 4
Haurrak: Ilintxa 3 - Arrasate 2
Hurrengoak:
3. maila: Zalla - Mondra. Igandea, 15.45.
2. regionala: Mondra - Elgoibar. Larunbata, 15.45.
Emakumezkoak: Lagun Onak - Mondra - UDA. Azpeitia, lar., 15.45.
Jub. Ohorezko Liga: Beti Onak - Mondra. Don Bosco, igan., 10.30
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Anaitasuna. Igandea, 10.00.
Kadeteak, 2. maila: Idiazabal - Arrasate - Almen. Larunbata, 15.45.
Haurrak: Arrasate - Idiazabal. Igandea, 12.00.

Saskibaloia

2. maila: Arrasate 96 - Loiola Indautxu 93
Sub-23: Arrasate 69 - Zarautz 73
Jub. mutilak: Ordizia 65 - Arrasate A 66
Kadeteak, neskek: Ordizia 99 - Arrasate B 8
Kadeteak, mutilak: Laskorain 54 - Loramendi Kirolak 114
Arrasate B 61 - Ikastola Urmek 46
Hurrengoak:
2. maila: Cantabria - Arrasate. Logroño, larunbata, 18.30.
Sub-23: Juven - Arrasate. Donostia, igan., 12.00.
Jub. mutilak: Arrasate A - Fortuna. Musakola, igan., 12.00.
Jub. neskek: Loiola - Patterncam. Donostia, lar., 16.00.
Kadeteak, neskek: Arrasate B - Zarautz A. Azpeitia, lar., 11.00.
Kadeteak, mutilak: Iraurgi - Loramendi Kirolak, Tolosa, lab., 10.00

Zarautz - Arrasate B. Zarautz, lar., 16.00.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Algorta 5 - Arrasate 37
Jubenilak: Eibar 25 - Arrasate 10
Hurrengoak:
Euskal liga, 2. m.: Arrasate - Arratiko Zekorrek. Garagartza, lar., 16.15.
Jubenilak: Arrasate - Zarautz. Garagartza, larunbata, 15.00.
Neskek: Elorrio - Arrasate. Larunbata, 11.00.


Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate 18 - Aloña Mendi 15
2. eskualdekoa: Arrasate 23 - Zestoa 7
Jubenilak: Urola 23 - Arrasate 22
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Legazpia - Arrasate. Igandea, 12.00.
2. eskualdekoa: Bidebieta - Arrasate. Anoeta, igan., 11.00.
Jubenilak: Ordizia - Arrasate. Arrasate, 12.00.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 08 15

HAURTOKO A
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

BLUSAS OSAGARRIAK POLTSAK
XAHO
ANGELA UNZUETA
Novecento esklusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie
Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



rrasateko Banco Guipuzcoano banketxeke langileek, San Carlos Borromeo egunean, bankeroen zaindariaren egunean, egindako ospakizuna, bazkaria, jasotzen du erretratu honek. 1959ko azaroaren 4ean, orain 34 urte, Zerkaosteta kaleko atzekaldean, Toki-Ona tabernan atera zen.

Goiko iladan, ezkerretik eskumara zutik, **Franzisko Etxebeste Galfarsoro** (zuzendaria), **Imanol Agiriano**

Zubia, Eugenio Gorosabel Garmendia, Iñaki Iregi Bidaburu, Jose Mari Azkoaga Aiastui, Julian Aierbe Juaregi, Esteban Garai Ezkurra (gaur egungo zuzendaria), **Lorentzo Uribarren Azkoaga, Alberto Ugarte Letona, Anatolio Saiz Alcalde** eta **Rafael Iturbe Bergaretxe.**

Makurtuta, ezkerretik hasita, **Ildefonso Ugarte Ba-**

lanzategi, Jose Luis Torres Zabarte, Jabier Kintana Santamarina, Jabier Balanzategi Beloki, Juan Jose Iregi Bidaburu, Estanislao Samaniego Sojo eta **Felix Txintxurreta Etxebarriarteun.**

Argazki honetan agertzen ez direnak, **Jabier Etxebarria Erguin, Maria Pilar Etxebeste Inziarte, Jose Mari Otadui Maidagan** eta **Imanol Iregi Bidaburu.**



Mondeo

MUGARRI



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.



"HAMAR URTE, EGUNEZ EGUN, ARRASATE EUSKALDUNTZEN"

Parte har ezazu **ZUK ZEUK ERE**
Ekitaldi hauetan:

Bihar, azaroaren 6an:

- Primerako antzerkia




Gaueko 10,30etan
Amaia antzokian

Eta datorren zapatuan, azaroaren 13an:

- **ARRASATE EUSKALDUNA**
herri bazkaria

*Polikiroldegian
2etatik aurrera*



- Bazkarian, "ARRASATE EUSKALDUNA" lemarekin bat egiten dugun guztiok egin behar dugu topo.
- Bertan: bertsolariak, trikitalariak, dantzariak, e. a.... izango dira... **GIRO APARTA!!**
- Eskura ezazu txartela lehen bait lehen AEDn, Hiren...

Goizalde

D A S T A P E N A

Goaldi Berezia



- Kafea
- Esnea
- Croissant edo torrada
- Marmelada eta gurina
- Laranja zumoa

275 pzta.



Urtebetetze ospakizunak

Pintxo aparteak



Etor zaitez Zain gaituzu!

José Letona Enparantza



ARTE AZCOAGA

Altzari, Erregali, Apainketa eta Proiektuak

Gogoko egingo zaizun proiektua

Orain, zure etxerako aspaldidanik amesten duzun proiektua egiterakoan, hurrengo **hamabi hilabeteen finantziazioa interesik gabe** lortuko duzu. Eta gainera inongo banku edo kutxatatik pasatu gabe. Interegarria, ezta? Etor zaitez bisitatzera.

Gral. Alava, 32.— Tfnoa: 23 03 69 — GASTEIZ

Industrialki izoztutako janariak

Elikagaiak kontserbatzeko gaur egun dauden teknika modernoen artean, gero eta indar handiagoa hartzen ari da metodo industrialak erabiliz izoztea.

Izoztutak janariak gaur egungo elikaduraren oso barneratuta daudela esan daiteke, eskaintzen dituzten abantaila handiengatik.

Bide industrialak erabiliz egiten den jakien kontserbazioa, oso era azkarrean egiten da, eta beti zero azpitik 40°C baino tenperatura bazuagoe-tan. Iozketa egokia garanti-zatuta izaten da horrela, produktuaren erdigunea edo "bihotza" zero azpitik 18°C-tara ahalik eta azkarren eramatea lortuz.

Operazio hori hain azkar eginda, honela deitzen dira tratamendu hori jaso duten produktuak: ultrakongelatuak, superkongelatuak, hoztuak, nitrokongelatuak e.a., etxean izoztutak janarietatik



bereizteko.

Izen komertzial hauetako batzuk janari horiek izozteko erabilitako prozesu industriari aipatzen dute; horrela, nitrokongelatuak esatean, izozketa nitrogeno likidoa erabiliz lortu dela esan nahi da, eta beste batzuk marka komertzialekin eta produkzio

teknikekin identifikatzen dira.

Produktuak espezialdu-tako lantegian izoztu ondoren, -18°Ctik -20°C-ra bitarteko tenperaturan mantentzea beharrezkoa da, kontsumitzaileak erabiltzeko unea iritsi arte.

Kontserbazio-kamaratan, garraioan, saltokiko egonal-

dian eta etxeko kontserbazioaldian tenperatura horiei iraukor eusteari "hotz katea" deitzen zaio eta ez da inola ere eten behar.

"Kate" horren azken mailak, saltokia eta etxea, dira arreta eta zainketa handiena behar dutenak, produktuek aldaketarik izan ez dezaten.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
A

ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

V. O. Version Original

General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Gela bat dago libre** bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Leioan bi ikasle behar dira** pisua osatzeko. Tfnoak: 77 12 00 (lan-orduetan) eta 71 42 10 (Gauetz). Kontxi.
- **Etxebizitza salgai S. Andres auzoan.** 58 m². Guztiz berritua. Egoera ezinhobean. Deitu 79 54 65 tfnora. Ara.
- **Zaragozan pisu bat osatzeko** pertsona bat behar dugu. Tfnoak: 79 52 97 edo 75 19 98.
- **Bilbon, bi pertsona behar dira** pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 475 71 72. Oso merke.
- **Familia batek bi ohedun logela** eskaintzen du ikasle edo langileentzat. Konfortablea. Pentsio osoa, erdi pentsioa edo lo egiteko. Interesatuak Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25, bajutik pasa.
- **Isaban apartamentua alokatzen da.** Sukaldegongela, komuna, 2 logela. Interesatuak (948) 11 14 58 tfnora deitu (8etatik 10etara). Juanan.
- **Deustun pisu bat betetzeko** pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** 80 m². 3 logela, 2 bainu, saloia, sukaldea, berogailua, igo-gailua, eta ganbara ditu. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Ingenieritzako hiru ikasle pisu bila** Arrasaten. Mesedez, azkar-azkar deitu. Tfnoa: 79 41 69.
- **Pisua saltzen da Gasteizen.** Erdialdean. 130 m². Berritzea behar du. Tfnoa: (945) 13 07 27.

Lana

- **Esperientziadun gazte bat naiz,** garbiketak eta jende nagusia zaintzeko prest nago. Deitu 79 50 30 tfnora. Jose Miguel.
- **Emakumea esperientziadunak ume zaindu** edo etxeko lanak egingo lituzke. Arantxa. Tfnoa: 79 13 66. Edozein ordutan.
- **Kanguro lana egingo nuke** ostiral eta larunbat gauetan. Tfnoa: 79 65 70. Ainhize.
- **Neska bat O.H.O.ko klaseak emateko prest dago.** Eta euskarazko klaseak ere ematen dira. Deitu 79 25 09 tfnora. Galdetu Anaz.
- **Unibertsitateko ikasle esperientziaduna** O.H.O.ko klaseak emateko prest. Tfnoa: 77 05 90. Aitziber.
- **Emakume esperientziaduna** pertsona nagusiak, umeak, gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko** neska bat prest. Deitu 77 06 48 tfnora. Dorleta.
- **Ingeniaritzako 3. mailako ikasle batek,** dibujo klaseak emango lituzke (B.B.B. eta U.B.I.). Tfnoa: 79 98 70.
- **Emakumea prest umeak zaindu,** etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Biokimikako klaseak hartuko nituzke.** Urgentea. Deitu (94) 464 07 49 tfnora astegunetan eta 79 08 21ra astebukaeretan. Gauetz. Naia-ra.
- **Elurtxakurkumeak (Siberian-joski) salgai.** Oso arraza onekoak. Prezio onean. Tfno: 79 57 03.

- **ATLAS XT Plus 512 KB ordenadorea salgai.** Flipp de 3 1/2, 720 KB. Hard Disk 20 MB. Placa CGA/Hercules. Teclado expandido. Monitor Tatung 1422. Tfnoa: 77 07 44.
- **SEAT IBIZA salgai.** SS-X. Egoera onean eta prezio ona. Tfnoa: 77 08 08.
- **Lan aldaketa arrazoi dela,** oso egoera onean dagoen 3 urteko CORSA JOY saltzen dut. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 54 46.
- **Karrerako bizikleta. RAZESA 57 tamainakoa.** Campagnolo Velore kambioak, frenoetako eskutokietan palankadunak. Shinano pedaleak, Kanpagnolo-Athena frenoekin. Rolls sillinarekin. Tfnoa: 79 90 03.
- **Egurrezko berogailua salgai.** ROCA markaduna. Deitu 79 07 25 tfnora.
- **Estufa japoniarra** (Cibro-camin edo antzerakoa) erosi edo alokatuko nuke. Tfnoa: 77 05 24. Gauetz.

Denetarik

- **Pianoak afinatzen dira.** Tfnoa: (945) 44 52 85. Aramaixo.
- **Ikasurte honetan egunero Gasteizera joan eta etortzeko.** Interesatuak dei egin (945) 14 00 66. Nieves.
- **Beroki bat galdu nuen asteazkenean.** Meca parean kotxeak garbitzeko dagoen tokian. Tfnoa: 79 90 57. Olatz.
- **Samoiedo txakurrak salgai.** Pedigridunak. Ar eta emea. Prezio interesgarria. Tfnoa: (945) 27 78 44.
- **Astean zehar,** gaueko 9ak inguru, Gasteiztik Eskoriatzarako bidea autoz egiten baduzu, deitu ALECOpera. Tfnoa: 79 50 11. Esther Perurena.

Salerosketak

Aste Gazte

Bekak:

• Euskal Autonomi Elkarteko administrazio publikoen hizkuntza normalakuntzari buruzko gaiak ikertzeko bekak. Lizentziatura ikasketak 89tik aurrera amaitu duten EGAdunei zuzenduak. Epea: azaroak 12.

• Senatuan Artxibista eta Dokumentazio lanetan aritzeko lankidetzak bekak. Filosofia, Politika Zientziak, Soziologia edo Zuzenbi-

dean lizentziatuei zuzenduak. Epea: azaroak 15.

• Gai konkretu batzuei buruzko ikerketa lanak egiteko bekak, goi mailako titulatuak zuzenduak. Epea: azaroak 28.

Ikastaroak:

• Sukaldaritza: oinarrizko teknikak, Oñatiko Goi Mailako Ostalaritza Eskolan. Iraupena: azaroak 18-abenduak 23. Astelehenetik ostegunera, 4.30etatik 7.30etara, gutzira, 54 ordu.

Matrikula: 20.000 PTA. Plaza mugatuak.

Ikereketak saria:

• Xabier Maria de Muniobe saria, Euskadiko Gazteriari buruzko ikerketak. Euskaraz nahiz gaztelerez. Dirulaguntza: milio bat. Epea: abenduak 31.

Lehiaketak:

“Ana Maria Matute” VI. Narrazio Lehiaketa, emakumezkoei zuzendua. Gaztelerez. Gai librea, gehienez, 12 orrialde. Dotazioa: 225.000 PTA. Epea: azaroak 15.

“Gure garaiko etiketa modakoena antixenofobia eta antimilitarismoa da, eta hori ez da oraindik dendetan saltzen.”

“EL FUNGIBLE” ALDIZKARIA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Z E R N A H I A G O ?

Begoña Casado

Altamira Jaki dendakoa



- **Zer da gehien saltzen dena?** Txarkuteria eta fruta.
- **Eta gutxien?** Alkoholdun edariak.
- **Gizon asko etortzen da erosketak egitera?** Bai, denda honetara asko.
- **Desio bat eskatu ezazu?** Orokorrean, gauzak martxa onean joatea.
- **Ekologista zara?** Bai, baina ez praktikantea.
- **Margotzen dituzu hatzazkalak?** Ez.
- **Zer botatzen duzu faltan Arrasaten?** Kultur ekin-tzak.
- **Bokadiloak zerez betetzen dituzu?** Lomozko lukaikaz.
- **Sekretu asko duzu?** Ez.
- **Zer eritzi duzu igandetan dendak zabaltzeari buruz?** Txarra, dendariok atsedean bat behar dugu eta.
- **HIESari beldurrik ba diozu?** Bai, noski.
- **Nori edo zeri diozu inbidia?** Ez dut ezerren eta inoren inbidiarik.
- **Asteko egun bat?** Ostirala, noski.

BERTSOAK

AED

Arrasate Euskaldun Dezagun da AEDren esan naia au sortu zala amar urte luze pasatuak dira ia. Bere asmoa gure errian euskara indartutzia zalantza gabe jokabide bat benetan txalogarria.

Euskera makal zebilela ta eñiaz laguntzeko plana baliotsu eta eskertzekoa amar urtez eindan lana kontuan artu oraindik ere ez dagola eginda dana ondorengo urteetan zear eindezagun falta dana

MAXIMO LETONA

Hurrengo astean,
MARKELIÑE

antzerki taldeak

“ENTRETEJAS”

antzezlanana emango du:

Azaroak, 13
larunbata

Amaia antzokian
Gaueko 10,30etan



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ARRASATEKO UDALA

Manuel Quevedo margolaria

Arrasate Margo Taldea, martxan

Arrasate Press eta ATBk, bizilagun berriak dituzte duela hilabete batetik. Beste asko bezela, aspalditik zebiltzan herriko artista hauek lokal baten beharrea. Manuel Quevedo margolariak kontatu digunez, aurrerantzera prestatuak dituzten aktibitateak oso ugariak dira. Lokaleko argiak bahintzat gau eta egun egoten dira piztuta.

— Nondik sortu zen AMT-ren ideia?

— Ideia duela urte bat sortu zen gutxi gora behera. Arrasaten pintura inizatiba indibidual asko zegoela ikusten genuen, hau da, bakoitzak bere aldetik egiten zuen lan. Arrieta eta biok pentsatu genuen, ideia ona izango zela inizatiba guzti hauek batu eta talde bat sortzea. Horrela ba, ideia elaboratzen joan ginen.

— Nola elkartu zenituzten Arrasateko margolari guztiak?

— Aspalditik elkar ezagutzen genuen, pintura ikastaro nahiz lehiaketetan elkarrekin egonda geundelako. Baina, tira, guzti-guztiak ez genituen ezagutzen, noski. Dena



den, oso faktore garrantzitsu batek lagundu digu taldea osatzen, ahoz-ahoz egon den trasmizioak hain zuzen ere; margolari batek besteari talde bat osatzeko asmoa zegoela esaten zion eta honek beste bati. Horrela, askoz ere errazagoa izan da.

— Zailtasunik izan dituzue lokala lortzeko orduan?

— Helburua argi genuen, margolari guztiak lasai margotu ahal izateko leku aproposa besterik ez genuen nahi. Lehen Monterronen egoten ginen baina hura oso txiki geratu zitzaigun; ikastaroak zirela eta, gainera, beti ibili behar izaten genuen koadroekin aurrera eta atzera. Normala denez, udaletxearekin bilerak egin behar izan ditugu baina beti egon izan dira laguntzeko prest. Aktibitate-egitarau bat

prestatu genuen, gustatu egin zitzairen eta lokala eman ziguten. Halakoxe sinplea.

— Zein aktibitate daukazue prestatuak aurrerantzera?

— Asmo asko ditugu. Hasteko, urte amaieran taldeko margolari guztiak erakusketa kolektibo bat egingo dugu. Aurretik ere Gasteizen egon ginen denok pintura erakusketa bat ikusten eta udan Zarautzen izan ginen pintura ikastaro baten. Lokala guztiz montatzea bukatzen dugunean, erakusketak, diapositiba eta bideo emanaldiak antolatuko ditugu, agian ikastaroak ere bai. Maila pertsonalean edukitzea ezinezkoa den pinturari buruzko liburutegi bat ere lortu nahi dugu... baina hainbeste gauza dira!

“Gazteak Martxan” Argazki lehiaketaren irabazleak

Arrasateko udaleko gazte-zerbitzuak antolatutako argazki lehiaketaren eta ikusentzunezko muntaiaren berri dakarzugue oraingoan. Azaroaren 11an, argazki parte-hartzaile guztiakin, ikusentzunezko muntaiaren proiektzioa burutuko da Monterroneko Hitzaldi Aretoan eta proiektzio honekin batera, sari banaketari ekingo zaio. Nahiz eta hasiera batean ekitaldi guzti hauek azaroaren 5ean egingo zirela jakinarazi zen, datak aldatu egin dira, eta esan bezala, atzeratu egingo da azaroaren 11 irarte. Epaimahaia azaroaren 4an bilduko da eta sarituen berri, azaroaren 5ean emango da.

Dena den, argazkilaritza gustoko baduzu eta lehiaketa interesgarri honetara aurkeztu diren lanen kalitatea ikusi nahi izanez gero, azaroaren 5etik 21era bitartean Monterroneko erakusketa-aretoan ikusgai izango dituzula jakin ezazu. Zure informaziorako: 29 lagunek parte hartu dute, guztira 71 argazki aurkeztu direlarik. Lehiaketa honek muga geografiko guztiak hautsi dituela esan behar da: 16 gipuzkoar, 5 bizkaitar, arabar bat, napar bat eta Valladolid, Algeciras, Madril, Valencias, Getafe eta Granollersko 6 gazteek hartu baitute parte. Argazkien erakusketa ikustera joatea gomendatzen dizuegu hemendik.

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.


San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

“Arrasate 93” lehiaketaren epea amaitzear

Behin eta berriz gabiltza “Arrasate 93” literatur, bideo, diapositiba eta komiki lehiaketaren epea amaitzear dagoela gogorarazten, baina denbora faltagatik lan bat edo beste saritu gabe gelditzea lastima litzateke. Jakin ezazu lanak entregatzeko epea azaroaren 5ean bukatzen den arren, bi edo hiru egun beranduago entregatuz gero, AED elkarteak gustora hartuko dizula. Fin ibili baina batez ere, azkar.

Arizmendiarreta VIII. Lehiaketa

Amaitu da dagoeneko Gizabide fundazioak antolatzen duen OnJose Maria Arizmendiarreta Lehiaketan parte hartzeko epea, eta guztira 20 lan baino gehiago aurkeztu dira sariketara. 14 urtetik 18ra arteko gazteentzat egindako idazkuntzaedo saiakera lehiaketa izaten da hau, eta aurten “Langabezia eta solidaritatea” zen gaia. Antolatzaileen iritziz, jasotako lanen kalitate maila oso ona da. Irabazleen aldarrikapena abenduaren 2an izango da Eskola Politeknikoan egingo den ekintza akademikoan.



Txalapartariak entsaio batean.

Arrasate txalapartaren soinurik gabe

Duela lau urte, udaletxeak txalaparta ikastaro bat antolatu zuen. Gutxi gora behera 100 pertsonak hartu zuten parte. Ikastaro hura bukatu eta hogeitamar bat gaztek txalaparta talde bat osatzea pentsatu zuten. Baina gehienetan gertatzen den bezela, taldea osatzea proposatu zuten 30 haietatik, asko joan egin ziren eta 10 bat gazteko taldea geratu zen. Guztiek ziren arrasatearrak eta guztiek nahi zuten lokal bat non ensaiatu ahal izateko.

Duela gutxirarte entzun zitezkeen txalpartaren egur hotsak Telefonikako edifizio zaharraren ondokigero ezkerrean. Txalapartariak Garibai etxeari elkartuta zegoen edifizioan ensaiatzen zuten, trikitalari, dultzainero eta dantzariekin batera. Noski, ordutegiari

zegokionez guztien jarri behar izaten zuten elkarrekin ados. Horrela, hiru urte luzetan ibili ziren. Ez zen oso leku aproposa, ez zuten nahi beste txalaparta jotzen, baina tira, bazuten non euskal hots erritmiko horren soina momentu batez berreskuratu.

Eskoriatzan eta Oñatin txalaparta ikastaro bat eman zuten, baita Arrasateko Gaztetxean ere. Dena den, zor handia dute Lorentzo Altuberekin. Gizon honek ikastaro guztien kontaktuak egin zizkien eta materiala lortzen lagundu zien. Gizon honek txalaparta du afizio eta 30 bat ohol desberdin ditu. Berak ez daki txalaparta jotzen, baina talde honi izugarri lagundu dio aurrera egiten.

Gaur arte erabili izan duten txalaparta udaletxeak eman zien baina dagoneko guztiz zulatuta dagoenez, udaletxearen diru laguntza bati esker eta ikastaroetatik ateratako diruari esker, sei egur ohol handi, tabureteak, kabaletak eta txalaparta txiki bat erosi dute, sei ohole-tako txalaparta hain zuzen. Dena den talde honek ez du gehiegi erabiliko materiale guzti hau lokal bat lortzen ez duen bitartean. Momentu hauetan ez dute ensaiarik egiten, ez dute lokalik eta. Frantziskotarrek Sebero Altuben duten lokalean egon ziren denbora batean, baina bertan egoteko epea bukatu egin zitzaizen ere. Momentu honetan, ez ditzatela kalean utzi, besterik ez dute eskatzen.

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

zortzi

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Begoña

lurrindegia

**Drogeria
Jostailuak
Opariak**


Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

• ESAERA ZAHARRA •

"Irakurri dugula esateko irakurtzen dugu."

LAMB

• JEROGLIFIKOA •



Zer gertatu zaio sokari?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3		4	5	6	7
8				9			
10			11		12		
13				14			
15							
16		17					18
19					20		

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Xaflatu. 8. Eusko Langileen Alkartasuna. 9. (Ald.) Pisuhi. 10. Hitzarmen. 12. Musu. 13. (Ald.) Gaztelu izeneko leku baten. 15. Antzoki. 16. Zirkonioa. 17. (Ald.) Donostiako disketxea. 18. Musika eskalako 6. nota. 19. Europako Aire Konpainien Elkarte. 20. Zaren horrek.

Bertikalak 1. Arrasateko Elkartea Gastronomikoa. 2. Garaiera. 3. Iruzur. 4. Sodioa. 5. Auzi. 6. Estalki. 7. (Ald.) Zamatu. 11. (Ald.) Intsektuen ziri zorrotza. 14. Hiru adierazten duen aurritzia. 18. Lugoko ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez zaizkizu eskuak izorratuko egiten duzun lan gutxiarekin.

Taurus Zure burua Jainkotzat daukazu arren, ezer ez dakien pertsona arrunta zara.

Gemini Ez duzu diru faltarik izango. Edonon topatuko dituzu bost mila pezetakoak.

Cancer Zuk besteei egin dizkiezun mesedeak itzuliko dizkizue.

Leo Kontutan hartu mundu honetan larrosa politenek ere arantzak dituztela.

Virgo Zure buruarekin horrela jokatzek ez dizu ezertarako balioko.

Libra Agure zahar bat dirudizu gauza guztiengatik kexuka hasten zarenean.

Scorpio Ez ahaztu zein lagunen urtebetetzea den. Eskertuko dizu zoriontzea.

Sagitaris Beti etxean egotea ere ez da batere ona. Komeni zaizu haizea hartzea.

Capricorn Katu beltzak ez dizu zorte txarrik ekarriko eta ezta ezkerreko hankarekin jaikitzeak ere.

Aquarius Igandean, sekula ahaztuko ez duzun afari handi bat izango duzu.

Piscis Askatasun gehiegi ematen dizute daukazu adinerako.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• KARMELE IPARRAGIRREREN GOMENDIOA •




“Bizi zaitetz, eta utzi besteei ere bizi izaten”. Horixe da Karmeleren gomendioa, eta bizitzarako azken urteotan duen filosofia. “Zaharregia naiz, ume txikiak ditut, zer pentsatuko dute besteek, ridikuloa egingo dut, egingo nuke baina...” eta antzeko aitzakiekin biziz gero, alperrik da. Bizitzan pasatzen diren gauzak daztatu egin behar dira Karmeleren ustez, izan ere, “zaila da eginbakoaz damutzea, eta egindakoaz beti damutu izan naiz ni behintzat”.

• PROGRAMAZIOA •



- 7 Igandea**
8.30etan
Astebete (errepikapena)
9.00etan
Mondragol. Itxaro Zubillagarekin.
- 8 Astolohena**
1.35etan
Mondragolen errepikapena
7.55etan
Emisioa
8.00, 8.30, 9.00etan
Berriak
9.30etan
Mondrasport
10.00etan
Gauko pelikula: “Purpura Kolorea”
- 9 Asteartea**
1.35etan
Mondrasport (errepikapena).
7.55etan
Emisioa
8, 8.30, 9etan
Berriak
9.30etan
ATBketan lehiaketa.
10.00etan
Gauko pelikula: “Mad Max”
- 10 Asteazkena**
1.35etan
ATBketan (errepikapena).
7.55etan
Emisioa
8, 8.30, 9etan
Berriak
9.30etan
Pareak Jokuan: Etxebizitzak.
10.00etan
Pelikula: “Ilargiaren Konkista”.
- 11 Osteguna**
1.35eta
Pareak Jokuan (errepikapena).
7.55etan
Emisioa
8, 8.30, 9etan
Berriak
9.30etan
Bakarka. : Leturia panderrujola.
10.00etan
Zinea: “Asterix eta Kleopatra”.
- 12 Ostirala**
1.35
Bakarka (errepikapena).
7.55etan
Emisioa
8, 8.30, 9etan
Berriak
9.30etan
‘Astebete’. Mikel Irizarrek eta Luis Fernandezek aurkeztua. Plenoa eta AEDren 10. urteurrena aztergai.
10.00etan
Gauko Zinea: “Ehun metro”.

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

JEROGIFIKOA
Eien.
Kargatu, 11. Ezien, 14. Th, 18. Lu.
Maula, 4. Na, 5. Arazo, 6. Tapa, 7.
Bertikalak 1. Leintze, 2. Altierra, 3.
19. Eake, 20. Zuk.
Iun, 15. Teatro, 16. Zr, 17. Iz, 18. La.
9. Tara, 10. Iun, 12. Apa, 13. Gazte-
Horizontalkak 1. Lamiatu, 8. Ela
GURUTZEGRAMA



mokasin
Zapatak eta osagarriak
Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

“EDERTU”
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



a, eme...
interiores

Etxeko ekipamendu osoa

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE